2027

AURREKONTU OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoa

PRESUPUESTOS GENERALES

Comunidad Autónoma de Euskadi

03 Ekonomia, Lana eta Enplegua

Economía, Trabajo y Empleo

Eustat
Osalan
Lanbide

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

PROIEKTUA - PROYECTO

euskadi.eus

2027

AURREKONTU OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoa

PRESUPUESTOS GENERALES

Comunidad Autónoma de Euskadi

PROIEKTUA - PROYECTO

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

euskadi.eus

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2026ko urria / 1a, octubre 2026

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ogasun eta Finantza Saila / Departamento Hacienda y Finanzas

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

03-EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA
03-ECONOMIA, TRABAJO Y EMPLEO 6

Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas 7

Gastuen egoera-orria
El Estado de Gastos 71

3110 Ekonomia, Lana eta Enplegua. Egitura eta Laguntza
Economía , Trabajo y Empleo. Estructura y Apoyo. 72

3112 Lana
Trabajo 76

3121 Gizarteratzea
Inclusión Social 80

3125 Eskola-asegurua
Seguro Escolar 84

3211 Enplegua
Empleo 85

3212 Gizarte Ekonomia
Economía Social 88

3231 Prestakuntza
Formación 90

5511 Estatistika
Estadística 91

6116 Ekonomia eta Plangintza
Economía y Planificación 92

Sarreren egoera-orria
El Estado de Ingresos 95

3110 Ekonomia, Lana eta Enplegua. Egitura eta Laguntza
Econonía, Trabajo y Empleo. Estructura y Apoyo 96

3112 Lana
Trabajo 97

3125 Eskola-asegurua
Seguro Escolar 98

3212 Gizarte Ekonomia
Economía Social 99

Gastuen laburpenak
Resúmenes de Gastos 100

Sarreren laburpenak
Resúmenes de Ingresos 107

ORGANISMO AUTONOMOAK
ORGANISMOS AUTÓNOMOS 109

OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
OSALAN. Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales 110

EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundea
EUSTAT-Instituto Vasco de Estadística 155

ENTE, SOZIETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK
ENTES, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS 191

41 LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa
LANBIDE Servicio Público Vasco de Empleo *192*

Lanbide. Atalak
Lanbide. Secciones *243*

4101 Zuzendaritza nagusia
Dirección General *244*

4102 Koordinazioa eta komunikazioa
Coordinación y Comunicación *254*

4103 Administrazioa eta Zerbitzu Orokorrak
Administración y Servicios generales *264*

4104 Prestazioak
Prestaciones *277*

4105 Enplegua eta Prestakuntza
Empleo y Formación *286*

4106 Enpresak eta Ekintzailetza
Empresas y Emprendimiento *300*

03-EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA

03-ECONOMIA, TRABAJO Y EMPLEO

Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas

EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA

ECONOMIA, TRABAJO Y EMPLEO

SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 7. artikuluak ezartzen ditu Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari dagozkion egitekoak eta jardun-arloak. Baita 36/2024 Dekretua ere, uztailaren 30ekoa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailak aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena.

Esleipen funtzional eta antolamenduzko horretan oinarrituta, Sailari laguntzeko hiru zuzendaritza horizontal bereizten dira: Zerbitzuak, Kabinetea eta Komunikazioa, eta hiru jardun-arlo handi: Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantza, eta Enplegua eta Gizarteratzea. Horiek guztiak bat datoz sailburuordetzen egitura organikoarekin, eta hazkunde ekonomikoari eusteko eta bultzatzeko, herritarren oinarrizko premiei erantzuteko eta enplegu eta lan-baldintza duinak sortzen laguntzeko jarduerak sustatzen dituzte. Halaber, Sailari atxikitzen zaizkio OSALAN, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea eta EUSTAT, Euskal Estatistika Zerbitzua erakunde autonomoak eta LANBIDE, Euskal Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoa.

Horrela, egitura horrek oinarrizko hiru gai biltzen ditu herritar guztientzat: Euskadiko egoera ekonomikoaren azterketa, hazkunderako eta lan duinerako politikak sustatzeko, pertsonen garapen osoa ahalbidetzeko, arreta berezia jarriz Lan Osasunean eta Berdintasunean, zeharkako jarduera gisa; eta enplegu-politika integralak, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Sistema batekin, gizarte-politikak aintzat hartuko dituena eta helburu nagusitzat pertsonak gizarteratzea eta laneratzea izango duena.

Ekonomia Sailburuordetzari dagozkio Jaurlaritzaren politika ekonomikoaren plangintza, egiturazkoak ez diren funtsen plangintza eta kudeaketa, gaur egun berreskurapenerako eta erresilientziarako Europako funtsak (MRR), ebaluazio eta ikerketa ekonomikoa eta estatistika. Haren mende daude Ekonomia Zuzendaritza eta Plangintzako eta Egiturazkoak ez diren Funtsetako Zuzendaritza. Arlo horren mende dago EUSTAT Euskal Estatistika Erakundea.

INTRODUCCIÓN

La atribución de funciones y áreas de actuación que le corresponden al Departamento de Economía, Trabajo y Empleo viene establecida por el artículo 7 del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos. También el Decreto 36/2024, de 30 de julio, del Lehendakari, de modificación de los departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Sobre la base de dicha atribución funcional y organizativa se distinguen tres Direcciones horizontales de apoyo y asistencia al Departamento, como son Servicios, Gabinete y Comunicación, y tres grandes áreas de actuación: Economía, Trabajo y Seguridad Social y Empleo e Inclusión, las cuales son coincidentes con la configuración orgánica a nivel de las Viceconsejerías, que promueven actuaciones destinadas a sostener e impulsar el crecimiento económico, atender necesidades básicas de la ciudadanía y favorecer la creación de empleo y condiciones de trabajo dignas. Asimismo, se adscriben al Departamento los organismos autónomos OSALAN, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales y EUSTAT, Servicio Vasco de Estadística, y el ente público de derecho privado LANBIDE, Servicio Público Vasco de Empleo.

Esta estructura aglutina así tres materias básicas para el conjunto de la ciudadanía; análisis de la situación económica en Euskadi de cara a fomentar políticas para el crecimiento, trabajo digno que permita el desarrollo de las personas en toda su extensión con especial atención a la Salud Laboral y la Igualdad como actuación transversal, y las políticas de empleo también integrales con un Sistema de Garantía de Ingresos e Inclusión que atienda políticas sociales y que tengan como objetivo principal la inclusión sociolaboral de las personas.

A la Viceconsejería de Economía le corresponde la planificación de la política económica del Gobierno, la planificación y gestión de Fondos no Estructurales, actualmente los fondos europeos de recuperación y resiliencia (MRR), la evaluación e investigación económica y la estadística. Dependen de ella las Direcciones de Economía y la de Planificación y Fondos no Estructurales. De esta área depende el Instituto Vasco de Estadística EUSTAT.

Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetza lan-harremanen eta gizarte-ekonomiaren arloko lan-arloko legeria betearazteaz (kooperatibak, lan-sozietate anonimoak eta ekonomia solidarioa), enpresen gizarte-erantzukizunaz eta Gizarte Segurantzaz arduratzen da, Autonomia Estatutuan aurreikusitako baldintzetan, bai eta emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murrizten jarraitzeko sentsibilizazioaz ere.

Gai horiei gehitu behar zaizkie ekainaren 17ko 511/2025 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako etorkinentzako hasierako lan-baimenei dagozkienak. Errege dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio norberaren edo besteren konturako lanaren hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak, lan-harremana Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen duten atzerritarrei dagokienez.

Gainera, 2027an zehar, ordaindutakoaren araberakoak ez diren familia-prestazioen kudeaketaren transferentziak gauzatuko dira, bai eta kotizaziopekoak ez diren adingabeak jaio eta zaintzeagatiko sorospenarenak eta eskola-aseguruarenak ere.

Organikoki sailburuordetza horren mende daude Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza eta Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza, eta haren mende daude Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzaren Zuzendariordetza eta Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza.

Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzari dagokio enplegu-politikari eta laneko prestakuntzari buruzko eskumenak baliatzea, hargatik eragotzi gabe Hezkuntza Sailak Lanbide Heziketaren arloan esleituta dituen zuzendaritza-, antolamendu- eta plangintza-eginkizunak, bai eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Sistema ere.

Enplegu Zuzendaritza eta Inkusio Zuzendaritza sailburuordetza horren mende daude.

Sailaren egitura zuzen-zuzenean Bigarren Lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuaren mende dauden organoekin amaitzen da: Zerbitzu Zuzendaritza, Saileko gainerako organoei laguntzeko organoa den aldetik bertako arlo guztietan; Kabinete Zuzendaritza, bere karguaren arabera esleituta dituen eginkizunak betetzeko zuzeneko laguntza-organoa den aldetik, bereziki sailburuaren lan-programaren plangintza, jarraipena, koordinazioa eta laguntza; Komunikazio Zuzendaritza, hari baitagokio Sailaren ekintzei buruzko informazio-harremanak zuzentzea eta informazioa zabaltzea; eta, azkenik, Enplegu eta Gizarteratze Politikak Ebaluatzeko Organoa-Besaldi, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen bidez sortu zena, eta Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legeak aldatu zuena.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari egiteko hauek dagozkio, besteak beste:

a. Jaurlaritzaren politika ekonomikoa planifikatzea.

La Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social se ocupa de la ejecución de la legislación laboral en materia de relaciones laborales y de la economía social: cooperativas, sociedades anónimas laborales y economía solidaria; de la responsabilidad social empresarial y de la Seguridad Social en los términos previstos en el Estatuto de Autonomía, así como de la sensibilización para seguir recortando la brecha salarial entre mujeres y hombres.

A estas materias se le une las referidas a las autorizaciones iniciales de trabajo para personas emigrantes transferidas a la Comunidad Autónoma Vasca por el Real Decreto 511/2025, de 17 de junio, de traspaso de funciones y servicios a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de ejecución de la legislación laboral del Estado sobre autorizaciones iniciales de trabajo por cuenta propia o ajena de las personas extranjeras cuya relación laboral se desarrolle en el País Vasco.

Además, durante el 2027 se harán efectivas las transferencias de la gestión de las prestaciones familiares en su modalidad no contributiva y del subsidio por nacimiento y cuidado de menor de naturaleza no contributiva y del seguro escolar.

Dependen orgánicamente de esta Viceconsejería la Dirección de Trabajo y Seguridad Social, de la que a su vez depende la Subdirección de la Inspección de Trabajo del País Vasco y la Dirección de Economía Social.

A la Viceconsejería de Empleo e Inclusión le corresponde el ejercicio de las competencias referidas a la política de empleo, a la formación en el trabajo, sin perjuicio de las funciones de dirección, ordenación y planificación en el ámbito de la Formación Profesional que tiene atribuidas el Departamento de Educación, así como el Sistema de Garantía de Ingresos e Inclusión Social.

Dependen de esta Viceconsejería la Dirección de Empleo y la Dirección de Inclusión.

La estructura departamental culmina con los órganos que se sitúan bajo la dependencia directa del Vicelehendakari Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo: la Dirección de Servicios, como órgano de apoyo a los restantes órganos del Departamento en materias de naturaleza común a las diversas áreas del mismo; la Dirección de Gabinete, como órgano de asistencia directa para el ejercicio de las funciones que tiene encomendadas en virtud de su cargo, singularmente de planificación, seguimiento, coordinación y apoyo del programa de trabajo del Consejero; la Dirección de Comunicación, a quien corresponde la dirección de la relaciones informativas y la difusión de la información de las acciones del Departamento y, por último, el Órgano de evaluación de las políticas de empleo e inclusión-Besaldi, que se creó por la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión, modificada por la Ley 15/2023, de 21 de diciembre, de Empleo.

Al Departamento de Economía, Trabajo y Empleo le corresponden entre otras las siguientes funciones:

a. Planificación de la política económica del Gobierno.

b. Egiturazkoak ez diren funtsen plangintza eta kudeaketa, gaur egun berreskuratze- eta erresilientzia-funts europarrak (MRR). Ebaluazio eta ikerketa ekonomikoa. Azterlan eta metodo ekonomikoak. Koiuntura eta aurreikuspen ekonomikoa.

c. Estatistika.

d. Enplegu-politika eta enplegurako lanbide-heziketa, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoarekin, bere erantzukizunen barruan.

e. Lan-harremanen arloko lan-arloko legeria betearaztea.

f. Gizarte-ekonomia: kooperatibak, lan-sozietate anonimoak eta ekonomia solidarioa.

g. Enpresaren gizarte-erantzukizuna.

h. Gizarte Segurantza, Autonomia Estatutuan aurreikusitako baldintzetan.

i. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Sistema.

j. Sailari atxikita dauden edo haren mende dauden sektore publikoko erakundeak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.

k. Legeek eta erregelamenduek eman diezazkioten gainerako ahalmenak.

Esleipen funtzional horretan oinarrituta, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila sail estrategiko gisa eratzen da, Jaurlaritzarentzat saihestezinak diren helburu batzuk lortzeko.

a) Euskadiko Ekonomia bultzatu eta sendotu, aberastasunaren birbanaketa, gizarte-kohesioa eta bizi-kalitate handiagoa sortzeko herritarrentzat. Eta hori guztia neurri ekonomiko berritzaile, iraunkor eta inklusiboak abian jarriz, lehiakortasunari dagokionez gure produkzio-sarea modernizatuz eta prestakuntza, I+G+b eta nazioartekotzea hobetuz.

b) Legegintzaldiaren amaieran enplegu betea lortzea, 2028an langabezia-tasa % 5etik beherakoa izatea (langabezia teknikoa).

c) Kalitatezko lan-merkatua finkatzea, eskubideak dituena, inklusiboa eta berdintasunezkoa. Helburua ez da emaitza kuantitatibo hutsak lortzea, kualitatiboak ere bai: osasun- eta segurtasun-baldintzetan garatuko den enplegu baten alde, langileen bizi-proiektuak erabat garatzea ahalbidetuko duen enplegu baten alde, azken batean, enplegu duin eta kalitatezko baten alde.

d) Kolektibo kalteberenei arreta ematea, bai laneratzeko eta gizarteratzeko formulei dagokienez, bai diru-sarrerak bermatzeko errentaren ereduak eskaintzen duen babesari eta haren eguneratzeari eta modernizazioari dagokienez.

b. Planificación y gestión de Fondos no Estructurales, actualmente los fondos europeos de recuperación y resiliencia (MRR). La evaluación e investigación económica. Estudios y métodos económicos. Coyuntura y previsión económica.

c. Estadística.

d. Política de empleo, así como la formación profesional para el empleo, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente, con la colaboración, desde sus responsabilidades, del ente público de derecho privado Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo.

e. Ejecución de la legislación laboral en materia de relaciones laborales.

f. Economía social: cooperativas, sociedades anónimas laborales y economía solidaria.

g. Responsabilidad social empresarial.

h. Seguridad Social en los términos previstos en el Estatuto de Autonomía.

i. Sistema de Garantía de Ingresos e Inclusión Social.

j. Dirigir, de acuerdo con las leyes y los reglamentos, las entidades del sector público adscritas o dependientes del Departamento.

k. Las demás facultades que le atribuyan las leyes y los reglamentos.

Sobre la base de dicha atribución funcional, el Departamento de Economía, Trabajo y Empleo se configura como un Departamento estratégico para el logro de unos objetivos ineludibles para este Gobierno.

a) Impulso y consolidación de la Economía de Euskadi que genere crecimiento redistribución de la riqueza, cohesión social y más calidad de vida para los ciudadanos y ciudadanas. Y ello a través de la puesta en marcha de medidas económicas innovadoras, sostenibles e inclusivas, por la modernización de nuestro tejido productivo en términos de competitividad y por mejorar la formación, la I+D+i y la internacionalización.

b) Conseguir al final de la legislatura el pleno empleo, que en 2028 la tasa de paro sea inferior al 5% (paro técnico).

c) Consolidar un mercado de trabajo de calidad, con derechos, inclusivo e igualitario. El objetivo no es conseguir resultados meramente cuantitativos, sino también cualitativos: por un empleo que se desarrolle en condiciones de salud y seguridad, un empleo que posibilite el desarrollo pleno de los proyectos vitales de los trabajadores, en definitiva, un empleo digno y de calidad.

d) Atención a los colectivos más vulnerables tanto en las fórmulas de inclusión laboral y social como por la protección que ofrece el modelo de renta de garantía de ingresos y su actualización y modernización.

Horretarako, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak ibilbide-orri bat ezarri du kalitatezko enplegua bultzatzeko, hazkunde ekonomikoari laguntzeko eta, besteak beste, honako jarduera-ardatz hauetan oinarritzen diren pertsona guztiak babesteko:

a) Ekonomia-plangintza bat, zifra ekonomiko handiak herritarren eguneroko ekonomiara hurbilduko dituena. Ekonomia enpresei, ekintzaileei eta langileei hurbildu nahi diegu. Garrantzitsua da plangintza ekonomikoa, makroekonomia, eragile horien eguneroko lanarekin estuki lotuta egotea. Sail honi ekonomiaren arloko eskumenak batzea, hain zuzen ere, zenbaki handiak errealitate txikietara itsastea da, zifra handiak enpresa txiki eta ertainen, saltokien, etxeen eta bizi-proiektuen egunerokotasunean islatzen diren moduan hobeto islatzea.

b) Next Generation funtsak arintzea, optimizatzea eta ixtea. Sailaren helburua, gure koordinazio-funtzioaren barruan, jarraipen- eta ebaluazio-lana egiten jarraitzea da, bai eta sail eskudunei laguntzea ere, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren Funtsak ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Era berean, Europako urte anitzeko finantza-esparru berrian gaitzen diren egiturazkoak ez diren funtsak koordinatu eta aztertu, Euskadik ahalik eta gehien aprobetxa ditzan bere eskumenen eta gaitasunen esparruan.

c)Enpleguaren Legea hedatzea. Arau hori onartuta, politika aktiboetarako sarbidea eskubide subjektibo bihurtu da, lan bila dabiltzan pertsona guztiek lan-orientazioa eta enplegu-plan indibidualizatua lortzeko aukera izan dezaten. Arau hau bere potentzialtasun osoan garatuko dugu eskubide hori gauzatzeko.

d) Berrikuntza. Tresna berri bat dugu, Besaldi, Inklusiorako Politika Publikoak Ebaluatzeko Organoa. Haren lanari esker, hobekuntzak ezarri ahal izango ditugu gure jarduera-eremu guztietan, laneko orientazioaren eta bitartekaritzaren eremuan aplikatutako ikerketa-, diseinu- eta berrikuntza-programen bidez.

e)Berdintasuna, gizonen eta emakumeen artean. Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren jardun guztiak gidatzen dituen muineko gaia da. Berdintasun hori zeharkako helburua da lan-merkatuan, eta sail honetan funtsezko bi gaitan gauzatzen da, erabat lotuta daudenak: berdintasun-planak eta soldata-arrakalaren aurkako borroka.

f) Arreta berezia emango zaie gazteei eta 45 urtetik gorakoei, eta, bereziki, 55 urtetik gorakoei, kalitatezko enplegua lortzeko.

Para ello, el Departamento de Economía, Trabajo y Empleo se fija una hoja de ruta para favorecer el empleo de calidad, coadyuvar al crecimiento económico y proteger a todas las personas que se sustenta, entre otros, en los siguientes ejes de actuación:

a) Una planificación económica que acerque las grandes cifras económicas a la Economía cotidiana de la ciudadanía. Queremos acercar la economía a las empresas, a los emprendedores, a los trabajadores y las trabajadoras. Es importante que la planificación económica, la macroeconomía, estén íntimamente ligadas al trabajo diario de estos agentes. Sumar las competencias en materia económica a este departamento es precisamente pegar los grandes números a las pequeñas realidades, traducir mejor las grandes cifras a cómo se reflejan en el día a día de pymes, comercios, hogares y proyectos de vida.

b) Agilización, optimización y cierre de los Fondos Next Generation. El objetivo del Departamento es, dentro de nuestra función de coordinación, seguir realizando la labor de seguimiento y evaluación, y asistir a los departamentos competentes para lograr el máximo aprovechamiento de los Fondos del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia. Asimismo, coordinar y analizar los fondos no estructurales que se habiliten en el nuevo marco financiero plurianual europeo, con el fin de maximizar su aprovechamiento por Euskadi en el ámbito de sus competencias y capacidades.

c) Despliegue de la Ley de Empleo. Con la aprobación de esta norma, el acceso a las políticas activas se ha convertido en un derecho subjetivo, de forma que todas las personas que buscan un trabajo tengan la posibilidad de acceder a una orientación laboral y a un plan individualizado de empleo. Desarrollaremos en toda su potencialidad esta norma para hacer efectivo ese derecho.

d) Innovación. Contamos con un nuevo instrumento, el Órgano de Evaluación de Políticas Públicas de Inclusión-Besaldi, cuyo trabajo nos permitirá implantar mejoras en todas y cada una de nuestras áreas de actuación a través de programas de investigación, diseño e innovación aplicada en el ámbito de la orientación e intermediación laboral.

e) Igualdad, entre hombres y mujeres. Es una cuestión medular que guía todas las actuaciones de este Departamento de Economía, Trabajo y Empleo. Una igualdad que es un objetivo transversal en el mercado de trabajo y que en este departamento se materializa en dos cuestiones fundamentales que están radicalmente conectadas: los planes de igualdad y la lucha contra la brecha salarial

f) Especial atención a jóvenes y mayores de 45 años, y específicamente a mayores de 55 para acceder a un empleo de calidad.

g) Elkarrizketa soziala eta enplegu-politika publikoak adostea. Arreta berezia jarri zaio Elkarrizketa Sozialaren Mahaiari. Mahai hori oinarrizko tresna bihurtu da politika publikoak diseinatu eta abian jartzeko, bereziki enplegu-politikak, eta horren bidez lan-munduan dauden solaskide nagusien adostasuna eta parte-hartze demokratikoa sustatzen dira.

h) Lan-osasuna. Laneko ezbeharren aurkako borroka.

i) Laneko Ikuskaritza indartzea lan-arloko araudia betetzen dela zaintzeko eta kontrolatzeko.

j) Euskal Enplegu Sistema Publikoaren eraldaketan aurrera egitea, Lanbide tresna baliagarria izan dadin langileak, aktiboak zein landunak, prestatzeko. Lanbide Hobetzen programa finkatzea.

Ardatz horietan oinarritzen dira Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren jardunak, kalitatezko enplegua, baldintza duinak eta segurtasunekoak sortzen laguntzeko. Horrez gain, gizarte-babeseko sistema indartzeko eta oparotasuna izan behar duen hazkunde-sistema ekonomikoa finkatzeko erronka dago.

ZERBITZU ZUZENDARITZA

Zerbitzu Zuzendaritzan sartzen dira aurrekontua egin eta kudeatzearekin lotutako jarduerak, langileen administrazioa eta kudeaketa, sailean emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak, administrazio-kontratazioa, informatika, hizkuntza-normalizazioa eta sail osoari laguntza orokorra emateko beste jarduera batzuk, barne-funtzionamenduko hainbat jarduera koordinatuz. Halaber, Gobernu Kontseiluari eta Gobernu Batzordeei aurkeztu behar zaizkien Sailaren gaiak izapidetzen ditu.

KABINETE ZUZENDARITZA

Kabinetearen Zuzendaritza arduratzen da Sailaren programaren plangintzaz eta jarraipenaz, haren kanpo-jarduerez eta Sailak sustatutako ekitaldi publiko eta ofizialez.

Zuzendaritza honek bere gain hartzen ditu Sailaren eta Eusko Legebiltzarraren arteko harremanak, eta erantzuna ematen die Legebiltzarreko ekimenei, idatziz erantzuteko galderei, dokumentazio-eskaerei, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko galderei, Batzordearen eskariz egindako agerraldiei, interpelazioei eta Batzordean ahoz erantzuteko galderei.

Kabinetearen Zuzendaritzaren lanaren beste alderdi bat da beste erakunde publiko batzuetatik (Arartekoa, esaterako) datozen kontsultei sailetako zuzendaritzek emandako erantzun dokumentatuak bideratzea.

KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA

g) Diálogo Social y concertación de las políticas públicas de empleo. Especial atención a la Mesa de Diálogo Social, que se ha consolidado como un instrumento básico en el diseño y puesta en marcha de políticas públicas, especialmente políticas de empleo, y a través de la cual se promueve el consenso y la participación democrática de los principales interlocutores presentes en el mundo del trabajo.

h) Salud laboral. Lucha contra la siniestralidad laboral.

i) Refuerzo de la Inspección Laboral, para la vigilancia y control del cumplimiento normativo en materia laboral.

j) Avanzar en la transformación del Sistema Público Vasco de Empleo que haga de Lanbide un instrumento útil para la formación de las personas trabajadoras, sean activas u ocupadas. Consolidación del programa lanbide Hobetzen.

Estos son los ejes sobre los que pivotan las actuaciones del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo para favorecer la creación de empleo, de un empleo de calidad, en condiciones dignas y de seguridad, a lo que se suma el reto de reforzar el sistema de protección social y el de consolidar un sistema económico de crecimiento que debe ser el de la prosperidad.

DIRECCIÓN DE SERVICIOS

En la Dirección de Servicios se incluyen las actividades relacionadas con la elaboración y gestión del presupuesto, administración y gestión del personal, impulsa las políticas de igualdad de mujeres y hombres en el departamento, contratación administrativa, informática, normalización lingüística y otras actividades de apoyo general al conjunto del Departamento, coordinando igualmente distintas actuaciones de funcionamiento interno. Asimismo, tramita los asuntos del Departamento que hayan de ser sometidos al Consejo de Gobierno y a las Comisiones del Gobierno.

DIRECCIÓN DEL GABINETE

La Dirección de Gabinete se ocupa de la planificación y seguimiento del programa del Departamento, actividades externas del mismo y actos públicos y oficiales promovidos por este.

Esta Dirección asume las relaciones del Departamento con el Parlamento Vasco, dándose respuesta a las iniciativas parlamentarias, preguntas para respuesta por escrito, solicitudes de documentación, preguntas para respuesta oral en Pleno, comparecencias a petición de la Comisión, interpelaciones y preguntas para su respuesta oral en Comisión.

Otra faceta del trabajo de la Dirección de Gabinete es la canalización de las respuestas documentadas de las Direcciones departamentales a las consultas provenientes de otras instituciones públicas, como el Ararteko.

DIRECCIÓN DE COMUNICACIÓN

Komunikazio Zuzendaritza arduratzen da sailaren komunikazio-politika zehazteaz, zuzentzeaz eta koordinatzeaz, sailaren jarduerak, erabakiak eta politikak behar bezala zabaltzen direla bermatzeko, bai informazio- eta prentsa-kanalen bidez, bai publizitate-kanalen bidez. Beste erantzukizun bat OSALAN, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea eta EUSTAT-Euskal Estatistika Zerbitzua erakunde autonomoak eta LANBIDE, Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoarekiko komunikazioa koordinatzea da.

Era berean, Sailari esleitutako webgunea eta sare sozialak zein Irekia ataria mantentzea eta horiek eguneratzea dagokio, herritarrei informazioa eta arreta emateko zerbitzuei erantzutea «Zuzenean», bere eskumeneko arloetan solaskide eraginkorrak daudela ziurtatuz, eta informazioa eskuratzeko eskaerak ebaztea.

Zuzendaritza honek ere egiten du Sailaren urteko argitalpen-programa, Argitalpen Zerbitzu Nagusiarekin lankidetzan.

La Dirección de Comunicación se ocupa de definir, dirigir y coordinar la política de comunicación departamental para garantizar una correcta difusión y divulgación de las actividades, decisiones y políticas del Departamento, tanto a través de los canales de información y prensa como de los publicitarios. Otra de sus responsabilidades es la coordinación de la comunicación con los organismos autónomos OSALAN, Instituto Vasco de Salud Laboral, y EUSTAT, Servicio Vasco de Estadística y el ente público de derecho privado «LANBIDE, Servicio Público Vasco de Empleo».

De igual manera, le corresponde el mantenimiento y actualización tanto de la web y redes sociales asignados al Departamento y en el portal Irekia, atender los servicios de información y atención a la ciudadanía «Zuzenean» asegurando la existencia de interlocutores operativos en las diferentes materias de su ámbito competencial, y resolver las solicitudes de acceso a la información.

También desde esta Dirección se elabora el programa anual de publicaciones del Departamento en colaboración con el Servicio Central de Publicaciones.

ENPLEGU ETA GIZARTERATZE POLITIKAK EBALUATZEKO ORGANOA

Enplegu eta Gizarteratze Politikak Ebaluatzeko Organoak (Besaldi) enplegu-politikei buruzko lehen ebaluazioa eta hiru urteko txosten orokorra egingo ditu, bai eta interesdun orori irekitako topaketen hirugarren zikloa ere. Haren sustapen-lana Euskal Herriko Unibertsitatera eta Eguía Careaga Fundaziora bideratzen da, enplegu- eta gizarteratze-politiken ebaluazioari buruzko jakintza eraikitzeko proiektuetarako. Azkenik, arreta berezia eskainiko dio erakundearen analisi funtzionalari, bere adimen pertsonalak, antolakuntzakoak eta artifizialak digitalizatu, automatizatu eta garatzeko.

ÓRGANO DE EVALUACIÓN DE LAS POLÍTICAS DE EMPLEO E INCLUSIÓN

El Órgano de evaluación de las políticas de empleo e inclusión (Besaldi) realizará su primera evaluación e informe general trienal sobre las políticas de empleo, así como su tercer ciclo de encuentros abiertos a cualquier persona interesada. Su labor de fomento se canaliza hacia Euskal Herriko Unibertsitatea y la Fundación Eguía Careaga, para proyectos de construcción de conocimiento en relación con la evaluación de las políticas de empleo e inclusión. Por último, tendrá una dedicación especial al análisis funcional de la organización para su digitalización, automatización y desarrollo de sus inteligencias personales, organizacionales y artificiales.

EKONOMIA SAILBURUORDETZA

Legegintzaldi honetan Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailean sartutako Ekonomia Sailburuordetzari dagozkio Jaurlaritzaren politika ekonomikoa planifikatzea, ikerlanak, azterlanak, metodo ekonomikoak, koiuntura eta aurreikuspen ekonomikoak, estatistikak, bai eta hurrengo 2028-2034 Urte Anitzeko Finantza Esparruan definituko diren Europako berreskuratze- eta erresilientzia-funtsak eta egiturazkoak ez diren funtsen koordinazioa eta jarraipena ere.

Ekonomia Sailburuordetzak, bere bi zuzendaritzen bitartez, Jaurlaritzaren Plan Estrategikoak baloratzeko azterlanak eta txostenak egiten ditu, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoen (EEM) bilakaerari buruz, bai eta ekonomiari buruz ere. Plan estrategikoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren plangintza estrategikoan enplegu-ikuspegia ezartzeko metodologia idazten lan egin du. Halaber, Euskadin Enpleguaren Kalitatea Neurtzeko Indize bat definitu eta sortzeari buruzko azterlan bat egin du, Estatuarekin eta gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta.

VICECONSEJERÍA DE ECONOMÍA

A la Viceconsejería de Economía, incorporada en esta legislatura al Departamento de Economía, Trabajo y Empleo, le corresponden las funciones de planificación de la política económica del Gobierno, investigación, estudios, métodos económicos, coyuntura y previsiones económicas, estadística, así como la coordinación y seguimiento de los fondos europeos de recuperación y resiliencia y futuros fondos no estructurales que se definan en el próximo Marco Financiero Plurianual 2028-2034.

La Viceconsejería de Economía, a través de sus dos direcciones realiza estudios e informes para la valoración de los Planes Estratégicos del Gobierno, sobre la evolución de los Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR), así como sobre la economía. En relación con los Planes estratégicos, ha trabajado en la redacción de la metodología para implementar la perspectiva de empleo en la planificación estratégica del Gobierno Vasco. Así mismo, ha realizado un estudio sobre definición y creación de un Índice para medir la Calidad del Empleo en Euskadi en comparación con el Estado y el resto de las comunidades Autónomas.

Euskadiko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari (EEM) dagokionez, hileroko txostenak idatzi dira (aginte-taula bat duten sail guztien kontsolidazioa), txosten xehatuak egin dira aurreko datuekin alderatuta, eta PERTEen bilakaerari buruzko hiru hilez behingo txostenak ere egin dira. Eta hori guztia komunikazio-ekintzen bidez ere zabaldu da (hiruhileroko agerraldiak, newsletterrak, hileko bideoak, albisteak, etabar), baita hilero eguneratzen den MRRren webgunearen bidez ere.

PERTEen urteko laburpenak ere egiten dira, eta Eusko Jaurlaritzako EEM funtsen kudeaketari buruzko azken memoria eta jardunbide egokien eskuliburua idatzi dira. Nabarmentzekoa da Basque Economic Forum 2026 delakoa antolatu eta ospatu zela maiatzean, jarraipena emateko asmoz. Horren edukia Euskadiko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren (EEM) Funtsen inpaktuari buruzkoa izan da.

Euskal ekonomiaren jarraipenari eta azterketari dagokionez, garatutako jarduera nagusiak bi eremu handitan egituratzen dira: egoera ekonomikoaren analisia eta azterlanak eta txostenak egitea. Egoera ekonomikoari dagokionez, 2026an astero egin da Astekonomia, Euskadiko eta nazioarteko ekonomiaren berrikuntza nagusiak biltzen dituen buletina. Hilero, Euskal Ekonomiaren Termometroa argitaratu da. Adierazle horrek egoera ekonomikoa laburbiltzen du, jardueraren, enpleguaren eta eskariaren hainbat aldagaitan oinarrituta, eta ekonomiaren hedapen-, dezelerazio- edo uzkurtze-faseak azkar identifikatzea ahalbidetzen du.

Era berean, Koiuntura klik batean zabaldu da, Euskadiko adierazle ekonomiko nagusien bilakaeraren ikuspegi erraz eta eskuragarria eskaintzen duen dibulgaziozko argitalpen bat. Halaber, telebista-mikroespazioak egin dira hilero ETB1ean eta ETB2an, euskaraz zein gaztelaniaz, euskal egoera ekonomikoaren mezu nagusiak herritarrei helarazteko. SASCAE (Euskal Ekonomiaren Koiunturaren Analisi eta Jarraipen Sistema) eredua ere egin eta eguneratu da. Sintesirako eta aurreikuspenerako tresna da, eta jarduera ekonomikoaren etengabeko jarraipena egitea eta epe laburreko analisiak eta agertokiak egiten laguntzea ahalbidetzen du.

Hiru hilean behin, Ekonomia Zuzendaritzak Euskal Ekonomiari buruzko Hiruhileko Txostena argitaratzen du. Bertan, jarduera ekonomikoaren, enpleguaren, prezioen eta produkzio-sektore nagusien azken aldiko bilakaera aztertzen da, baita egoeraren eta aurreikuspenen balorazioa ere. Horri gehitu behar zaio Euskal Ekonomiaren Urteko Txostena, 2026ko uztailean argitaratua, euskal ekonomiari buruzko ikuspegi estrukturalago batekin osatzen duena azterketa.

Egindako lanen artean, nabarmentzekoa da, halaber, Ikerbideren datu-baseak eguneratzea eta mantentzea, Euskadiko errealitate ekonomikoaren jarraipena eta azterketa egiteko erreferentziazko informazio ekonomikoa eta estatistikoa ikertzaileen, analisten eta arduradun publikoen eskura jarriz.

Respecto a al Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR) en Euskadi, se han redactado informes mensuales (consolidado de todos los departamentos con un cuadro de mando), se han realizado informes detallados con comparativa con datos anteriores, así como informes trimestrales de la evolución de los PERTEs. Y todo ello se ha divulgado también a través de actos de comunicación (comparecencias trimestrales, newsletters, videos mensuales, noticias, etc), así como a través de la web de MRR que se actualiza mensualmente.

También se realizan resúmenes anuales de PERTEs y se ha redactado una memoria final sobre la gestión de los fondos MRR en Gobierno Vasco y un Manual de buenas prácticas. A destacar la organización y celebración del Basque Economic Forum 2026 en mayo con vocación de continuidad cuyo contenido ha versado sobre el impacto de los Fondos del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR) para Euskadi.

Respecto al seguimiento y análisis de la economía vasca, las principales actuaciones desarrolladas se articulan en dos grandes ámbitos: el análisis de la coyuntura económica y la elaboración de estudios e informes. En materia de coyuntura económica, durante 2026 se ha elaborado semanalmente Astekonomia, un boletín que recoge las principales novedades de la economía vasca e internacional. Con periodicidad mensual se ha publicado el Termómetro de la Economía Vasca, un indicador que resume la situación económica a partir de diversas variables de actividad, empleo y demanda, permitiendo identificar de forma rápida las fases de expansión, desaceleración o contracción de la economía.

Asimismo, se ha difundido Coyuntura en un clic, una publicación divulgativa que ofrece una visión sencilla y accesible de la evolución de los principales indicadores económicos de Euskadi. Además, se han emitido mensualmente en ETB1 y ETB2, tanto en euskera como en castellano, con el objetivo de trasladar a la ciudadanía los principales mensajes de la coyuntura económica vasca. También se ha elaborado y actualizado el modelo SASCAE (Sistema de Análisis y Seguimiento de la Coyuntura de la Economía Vasca), una herramienta de síntesis y previsión que permite realizar un seguimiento continuo de la actividad económica y apoyar la elaboración de análisis y escenarios de corto plazo.

Con carácter trimestral, la Dirección de Economía publica el Informe Trimestral de la Economía Vasca, que analiza la evolución reciente de la actividad económica, el empleo, los precios y los principales sectores productivos, incorporando además una valoración de la coyuntura y previsiones. A ello se suma el Informe Anual de la Economía Vasca, publicado en julio de 2026, que complementa el análisis con una perspectiva más estructural sobre la economía vasca.

Entre las tareas desarrolladas destaca también la actualización y mantenimiento de las bases de datos de Ikerbide, poniendo a disposición de personas investigadoras, analistas y responsables públicos información económica y estadística de referencia para el seguimiento y estudio de la realidad económica de Euskadi.

Azterlan ekonomikoen esparruan, Zuzendaritzak Ekonomiaz, Revista Vasca de Economía aldizkariaren bi ale monografiko argitaratzen ditu urtero. 2026an 109. zenbakia argitaratu da: Etxebizitza eta egoitza. Ekonomia-, gizarte- eta hirigintza-erronkak; berrikuste- eta prestatze-fasean dago, berriz, kontratazio publikoari buruzko 110. zenbakia.

Era berean, Ikerketak Ekonomiaz bildumako lanak argitaratzen dira, eta bilduma horretatik 2026ko urrira arte hiru azterlan aurkeztu dira. Halaber, Zuzendaritzak interes ekonomiko bereziko gaiei buruzko txostenak egin ditu; horien artean, 2026an, EEM (Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa) funtsek euskal ekonomian duten eraginari buruzko azterlan bat egin da.

2026ko egungo testuingu ekonomikoan eta 2027rako aurreikuspenetan, non adierazle makroekonomikoek egonkortasuna eta neurrizko baikortasuna erakusten baitute, sailburuordetza honen helburua da Sailari eta gizarte-eragileei laguntzea, datuen analisitik eta ebidentziatik abiatuta, eta, erabakiak hartzeko orduan, hausnarketa-esparru bat eskaintzea, politika publikoak hobeto ezartzeko, eta, hartara, Euskadin produktibitatea eta kalitatezko enplegua sustatzeko.

Politika ekonomikoak aztertzea Sail honen eginkizunetako bat da, koherentzia behar baita plangintza estrategikoaren, aurrekontu-politiken eta politika ekonomikoen artean.

Plangintza estrategikoak bat etorri behar du Jaurlaritzaren lehentasunezko ardatzekin, eta, planetan, gizarte-eraldaketa ekarriko duten politikak jaso behar dira.

Jakin behar dugu nola eragiten duten politika publikoek gizartean, zenbateraino ezartzen diren proposamenak eta nola eragiten duten gizartean ikuspegi ekonomiko eta sozialetik, hain zuzen ere politika horiek eraginkorragoak eta efizienteagoak izan daitezen herritarren mesedetan.

Era berean, sailburuordetza honen ardura da egiturazkoak ez diren Europako funtsei dagokienez Jaurlaritzako sail guztien kudeaketa koordinatzea, horien jarraipen eta kontrol egokia ziurtatuz.

EKONOMIA ZUZENDARITZA

Ekonomia Zuzendaritzak, sailburuordetza honi atxikita, EAEko sistema sozioekonomikoa aztertzen eta monitorizatzen du, maila globalean eta lurralde-mailan, eta sistema horren jarduna inguruko erreferentzia geografiko nagusien jardunarekin alderatzen du. Arlo horretan, nabarmendu behar da euskal ekonomiari buruzko hainbat txosten egiten direla aldizka: haietan, adierazle ekonomiko nagusiak berrikusi, eta egoera ekonomikoari buruzko informazio sintetikoa argitaratzen da, astero (Astekonomia), hilero (koiuntura klik batean eta euskal ekonomiaren termometroa), hiru hilean behin (egoerari buruzko hiru hilean behingo txostenak), bai eta urtero ere (urteko txostena). Era berean, Zuzendaritzak datu-base ekonomikoak mantentzen ditu, C-interreg eta Ikerbide, bai alderdi koiunturalean, bai egiturazkoan; izan ere, input pribilegiatuak dira EAEko errealitate ekonomikoa aztertzeko.

En el ámbito de los estudios económicos, la Dirección edita anualmente dos números monográficos de Ekonomiaz, Revista Vasca de Economía. En 2026 se ha publicado el número 109, Vivienda y residencia. Retos económicos, sociales y urbanísticos, mientras que se encuentra en fase de revisión y preparación el número 110, dedicado a la contratación pública.

Asimismo, se publican trabajos en la colección Ikerketak Ekonomiaz, de la que hasta octubre de 2026 se han presentado tres estudios. La Dirección elabora igualmente informes sobre cuestiones de especial interés económico; entre ellos, durante 2026 se ha realizado un estudio sobre el impacto de los fondos MRR (Mecanismo de Recuperación y Resiliencia) en la economía vasca.

En el entorno económico actual de 2026 y previsible para 2027 de estabilidad y moderado optimismo en cuanto a los indicadores macroeconómicos, esta Viceconsejería tiene como objetivo el ayudar al Departamento como a los agentes sociales, desde el análisis y la evidencia de los datos para que en la toma de decisiones, se pueda tener un marco de reflexión para la mejor implementación de las políticas públicas, con el objetivo de impulsar la productividad y el empleo de calidad en Euskadi.

El análisis de las políticas económicas es una de las funciones de este Departamento, ya que tiene que haber una coherencia entre la planificación estratégica, las políticas presupuestarias y las políticas económicas.

La planificación estratégica debe responder a los ejes prioritarios del gobierno, y sus planes deberían contemplar políticas que generen un efecto transformador en la sociedad.

Tenemos que conocer como impactan las políticas públicas en la sociedad, el grado de implementación de las propuestas, el impacto que produce en la sociedad desde un punto de vista económico y social, para que estas sean más eficaces y eficientes en favor de la ciudadanía.

Asimismo, esta Viceconsejería es responsable de coordinar la gestión de todos los Departamentos del Gobierno respecto a los fondos europeos no estructurales, asegurando su adecuado seguimiento y control.

DIRECCIÓN DE ECONOMÍA

La Dirección de Economía adscrita a esta Viceconsejería analiza y monitoriza el sistema socioeconómico vasco a nivel global y territorial y compara su desempeño con el de los principales entornos geográficos de referencia. En este ámbito, cabe destacar la elaboración de diversos informes periódicos sobre la economía vasca: se revisan los principales indicadores económicos y se publica información sintética sobre la situación económica con carácter semanal (Astekonomia), con carácter mensual (Coyuntura en un clic y el termómetro de la economía vasca), con cadencia trimestral (Informes trimestrales de coyuntura) y, también, anualmente (Informe anual). Asimismo, la Dirección mantiene las bases de datos económicos, C-interreg e Ikerbide, tanto en su parte coyuntural como estructural, que sirven como input privilegiado para el análisis de la realidad económica vasca.

Era berean, politika publikoei, gizarte-eragileei eta, oro har, gizarteari zorroztasun zientifikoa emateko, monografikoak egiten dira Ekonomiaz aldizkariarekin eta Ikerketak seriea eginez eta editatuz.

Gainera, Ekonomia Zuzendaritzari dagokio Sailarekin zuzenean lotutako estatistika-eragiketak egitea.

Garapen horretarako, funtsezkoa da ikerketa- eta ikasketa-munduko eragileekin harremanetan egotea eta euskal ekonomiari buruzko informazioa eta analisia hobetzeko lan egingo duen lankidetza-ingurune bat garatzea.

PLANGINTZA ETA EGITURAZKOAK EZ DIREN FUNTSEN ZUZENDARITZA

Plangintza eta Egiturazkoak Ez diren Funtsen Zuzendaritzak egiturazko politiken eremuan parte hartzen du, Gobernuaren lehentasunezko ardatzei erantzunez eta politikak aztertuz, gizartean eragin eraldatzailea izan dezaten.

Hori dela eta, euskal ekonomiarentzat interes estrategikoa duten proiektuei buruzko txostenak aztertu eta egingo ditu, haien inbertsio-mailagatik eta enpleguaren kalitateagatik, eta eragina ebaluatzea ahalbidetuko duten metodologiak definituko ditu. Besteak beste, adierazleen indize bat garatzen jarraituko da, gizarte-eragileek eta administrazioak politika publikoetan erabili ahal izateko. Ildo beretik, Jaurlaritzaren plangintza estrategiko osoan enplegua aztertzeko metodologia bat landuko da, enplegu-legea betetzea errazteko.

Zuzendaritza hau Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa koordinatzeaz eta haren jarraipena egiteaz ardurdatzen da, hiru helburu betetzeko: sailei laguntzea ahalik eta gehien aprobetxa ditzaten jasotako funtsak; jarraipenaren bidez, baliozko informazioa sortzea, funtsen berri izateko eta euskal gizartean nola eragiten duten jakiteko, eta funts horien bilakaeraren berri ematea gizarteari, gizarte-eragileei eta erakundeei.

Era berean, Europar Batasuneko Urte Anitzeko Finantza Esparru berriaren esparruan gaitzen diren egiturazkoak ez diren funtsak koordinatzeaz eta aztertzeaz arduratzen da, Euskadik bere eskumenen eta gaitasunen esparruan ahalik eta gehien aprobetxa ditzan.

LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILBURUORDETZA

Euskadik Kalitatezko enpleguak sortuko dituzten enpresa-proiektu sendoak garatzeko aukera emango duten lan-harremanak behar ditu, Enpleguaren Euskal Legeak ezartzen duen harira (2. artikulua), esaten baitu enplegu duina lan-jarduera bat irisgarritasun unibertsaleko baldintzetan egiteko aukera ematen duena dela, familia-kontziliazioarekin bateragarria den bidezko diru-sarrera baten truke; segurtasuna ematen duena lantokian, gizarte-babesa, garapen pertsonalerako eta partaidetzarako aukerak eta aukera-berdintasuna; eta gizarteratzearen alde egiten duena.

Asimismo, con el objetivo de dotar de rigor científico tanto a las políticas públicas como a los agentes sociales y la sociedad en general, se elaboran monográficos con la revista Ekonomiaz y a través de la elaboración y edición de la serie Ikerketak.

Además, a la Dirección de Economía le corresponde realizar las operaciones estadísticas directamente relacionadas con el Departamento.

Para todo este desarrollo, es fundamental la relación con los agentes del mundo investigador y académico y desarrollar un entorno de colaboración que trabaje para mejorar la información y análisis de la economía vasca.

DIRECCIÓN DE PLANIFICACIÓN Y FONDOS NO ESTRUCTURALES

La Dirección de Planificación y Fondos no estructurales participa en el ámbito de las políticas estructurales respondiendo a los ejes prioritarios del Gobierno, y analizando las políticas para que generen un efecto transformador en la sociedad.

Por ello, analizará y emitirá informes sobre proyectos de interés estratégico para la economía vasca por su nivel de inversiones y calidad del empleo, definiendo metodologías que permitan evaluar el impacto. Entre otros se continuará con el desarollo de un índice de indicadores, que sirvan para que los Agentes Sociales y la administración lo puedan utilizar en las políticas públicas. También en este mismo sentido, se trabajará en una metodología de análisis del empleo en el conjunto de la planificación estratégica del Gobierno, para facilitar el cumplimiento de la ley de empleo.

Esta dirección se encarga de la coordinación y seguimiento del Mecanismo de Resiliencia y Recuperación, con un triple objetivo: ayudar a los departamentos a que se aprovechen al máximo los fondos recibidos, generar información de valor con el seguimiento que permita tener conocimiento de los fondos y como están impactando en la sociedad vasca, y comunicar a la Sociedad, los agentes sociales y organismos de la evolución de los mismos.

Asimismo, se encarga de coordinar y analizar los fondos no estructurales que se habiliten en el marco del nuevo Marco Financiero Plurianual de la Unión Europea, con el fin de maximizar su aprovechamiento por Euskadi en el ámbito de sus competencias y capacidades.

VICECONSEJERÍA DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

Euskadi necesita unas relaciones laborales que permitan el desarrollo de proyectos empresariales robustos que generen empleos de calidad, en el sentido que establece la Ley Vasca de Empleo (artículo 2) cuando dice que el empleo digno es aquel que brinda la oportunidad de realizar una actividad laboral en condiciones de accesibilidad universal a cambio de un ingreso justo y compatible con la conciliación familiar; que ofrece seguridad en el lugar de trabajo, protección social, perspectivas de desarrollo personal y de participación e igualdad de oportunidades; y que favorece la integración social.

Horregatik, lan-politikan, elkarrizketa sozialetik eta eragile ekonomiko eta laboralekiko akordiotik abiatuta, Sailaren baliabide guztiak enpleguaren kalitatea hobetzeko zerbitzura jartzea da helburu orokorra, laneko arriskuen prebentziorako politika integral batetik hasita, kalitatezko enpleguaren ezinbesteko baldintza gisa. Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2027ko Euskal Estrategiaren onarpenak, besteak beste gizarte-eragileekin landu eta Eusko Legebiltzarrera eramandakoak, mugarri berri bat izan behar du laneko arriskuen prebentzioan.

Enpleguaren kalitatea hobetzen laguntzen duten lan-harreman indartsuek hiru zutabetan oinarritu behar dute, eta horietako lehena legea betetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Ikuskaritzaren funtsezko eginkizunarekin.

2027an, bigarren Kudeaketa Plana ezarriko da, zerbitzu publiko hori indartzen jarraitzeko, langileen eskubideen bermatzaile gisa, eta gardentasunaren eta gizarte-eragileen parte-hartzearen aldeko apustuari eutsiz, Euskadiko Lan Ikuskaritzaren Aholku Batzordearen bitartez, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren barruan.

Lan-arloko legeria betetzeko ildo beretik, Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak, Euskal Lan Agintaritza den aldetik, enpresetako lan-baldintzak lan-arloko legeriarekin bat etor daitezen zainduko du, administrazioaren eta administratuen arteko harremanetan segurtasun juridikoa bermatuz, lan-espedienteak izapidetuz, hala nola enplegu-erregulazioko espedienteak eta lan-arloko zehapen-prozedurak, arretaz eta zorroztasunez, eta bere kargura dituen administrazio-erregistroak eraginkortasunez kudeatuz, eta administrazio-kudeaketa hobetzen jarraituko du herritarrekiko eta enpresekiko komunikazioan, administrazio elektronikoaren bidez.

Gainera, lan-legeria betearaztearen arloan, Euskal Autonomia Erkidegoan norberaren edo besteren kontura lan egiten duten atzerritaren hasierako lan-baimenak jasoko dira, baimen horiek 2025eko ekainean transferitu baitziren.

Lan-harremanak indartzeko bigarren zutabea elkarrizketa eta akordioa da, eta, zehazki, enpresa-erakundeen eta sindikatuen arteko bi aldeko elkarrizketa. Horretarako, Laneko Zuzendaritzak negoziazioaren eta akordioaren aldeko agertokia sustatuko du, enpresa-proiektuak indartzea eta garatzea eta langileen bizi- eta lan-baldintzak hobetzea ahalbidetuko duten hitzarmen kolektiboak lortzeko. Horretarako, negoziazio kolektiboaren protagonistak diren gizarte-eragileak indartzeko aukera emango duten politikak eta jarduerak ezarri behar dira, eta erabaki arrazionalak hartzea ahalbidetuko dien informazioa eta azterketak eskaini behar zaizkie eragile horiei.

Por ello, en política de trabajo, el objetivo general es, desde el diálogo social y el acuerdo con los agentes económicos y laborales, poner todos los recursos del Departamento al servicio de la mejora de la calidad en el empleo, empezando por una política de prevención de riesgos laborales integral como condición indispensable del empleo de calidad. La aprobación de la Estrategia Vasca de Seguridad y Salud Laboral 2027, trabajada entre otros con los agentes sociales y trasladada al Parlamento Vasco, tiene que suponer un nuevo hito en la prevención de riesgos laborales.

Unas relaciones laborales fuertes que coadyuven a la mejora de la calidad del empleo han de basarse en tres pilares, de los cuales, el primero de ellos es el cumplimiento legislativo, con el papel fundamental de la Inspección de Trabajo del País Vasco.

Durante el 2027, se procederá a la implementación del segundo Plan de Gestión, para continuar con el reforzamiento de este servicio público, como garante de los derechos de las personas trabajadoras, y manteniendo la apuesta por la transparencia y la participación de los agentes sociales, a través de la Comisión Asesora de la Inspección de Trabajo de Euskadi en el seno de la Mesa de Diálogo Social.

En el mismo sentido del cumplimiento de la legislación laboral, la Dirección de Trabajo y Seguridad Social, como Autoridad Laboral Vasca, tutelará que las condiciones de trabajo en las empresas sean acordes a la legislación en materia laboral, garantizando la seguridad jurídica en las relaciones Administración-administrados/as, tramitando los distintos expedientes laborales, como los Expedientes de Regulación de Empleo y los procedimientos sancionadores en materia laboral, con diligencia y rigor, y gestionando de manera eficiente los Registros administrativos que tiene a su cargo, y proseguirá con la mejora en la gestión administrativa en la comunicación con la ciudadanía y las empresas a través de la administración electrónica.

Además, se incluirán en materia de ejecución de la legislación laboral, las autorizaciones iniciales de trabajo por cuenta propia o ajena de las personas extranjeras cuya relación laboral se desarrolle en el País Vasco, que fueron transferidas en junio del 2025.

El segundo pilar del fortalecimiento de las relaciones laborales es el diálogo y el acuerdo y, en concreto, el diálogo bipartito entre organizaciones empresariales y sindicales. Para ello, desde la Dirección de Trabajo se fomentará un escenario favorable a la negociación y al acuerdo para lograr convenios colectivos que permitan el fortalecimiento y desarrollo de proyectos empresariales y la mejora de las condiciones de vida y trabajo de las personas trabajadoras. A tal fin, se deben implementar políticas y actuaciones que permitan reforzar a los agentes sociales, protagonistas de la negociación colectiva, y ofrecer a los mismos información y análisis que les permitan la toma de decisiones racionales.

Eta negoziazio kolektibotik harago, Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetzak Gizarte Elkarrizketarako Mahaia koordinatzeko ardura ere badu, Jaurlaritzaren eta gizarte- eta lan-arloko politika publikoen gizarte-eragileen arteko ituntze-foro nagusia den aldetik. Elkarrizketa Sozialaren Mahaia oinarrizko tresna bihurtu da politika publikoak diseinatu eta abian jartzeko, bereziki enplegu-politikak; izan ere, Enpleguaren Euskal Legeak lidergo eta koherentzia instituzionaleko enplegu-politika publikoen gobernantza ematen du, gizarte-eragileekin protagonismoa partekatzen du Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren bidez, eta elkarrizketa sozialak enplegu-politikaren definizioan duen protagonismoa indartzen du, Elkarrizketa Sozialaren Mahaia gobernantzaren ardatzetako batean kokatuz.

Horretarako, 2027ko ekitaldian partida espezifikoak aurreikusi dira Gizarte Elkarrizketako Mahaiarentzako laguntza teknikoa hobetzeko, bere lana erraztasun eta eraginkortasun handiagoz egin ahal izan dezan. Gainera, helburu nagusia Parte-hartze Instituzionalari buruzko Lege-aurreproiektu bat onartzea izango da, izapidetzen ari dena, Jaurlaritzak legegintzaldi honetarako sindikatu- eta enpresa-erakundeen parte-hartzearen esparru juridikoa finkatzeko konpromisoa betetzeko, erakunde horiek gure gizartean duten garrantzia eta garapen ekonomiko eta sozialari eta herritarren ongizateari egiten dioten ekarpena aitortuz.

Lan-politika guztien zeharkako helburua da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lan-merkatuan. Horretarako, Generoko Soldata Arrakalaren aurkako borrokari eutsi diogu 2027an, generoaren araberako lan-arrakalaren ondorio ekonomiko gisa: segmentazio bertikala edo kristalezko sabaia eta horizontala edo lan-merkatuaren segmentazioa, lan-denbora, jarduera-tasak, etab.

2027an Soldata Arrakala Murrizteko III. Plan Operatiboa garatuko da, aurreikusitako jarduerak bultzatuz eta inplikatutako sailen arteko koordinazioa eta jarraipena indartuz, helburuak betetzen direla ziurtatzeko.

Bestalde, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak gizarte-ekonomiarekin lotutako eskumenak ditu, besteak beste. Sailak Gizarte Ekonomiari ematen dion laguntza funtsezkotzat jotzen da kalitatezko enplegua sortzeko. Pertsona zentroan dagoen enpresa-proiektuak sortzeko modu alternatibo hori bereziki garrantzitsua da pertsona guztiengana iritsiko den hazkunde ekonomikoa lortzeko, kalitatezko enplegu inklusiboaren bidez, berdintasun-indizeak hobetzen dituena eta enpresa-proiektu sendoak, berritzaileak eta lurraldean errotuak garatzea ahalbidetzen duena. Horregatik, 2027. urtean Gizarte Ekonomiaren Sailarteko bigarren Plana egingo da. Plan horrek ekintzailetza kolektiboa garatzea izan behar du helburu, eta, horretarako, kooperatiba-proiektu berriak babestea eta indartzea ez ezik, kapital-enpresak enpresa kooperatibo bihurtzea ere sustatu behar du, langileek enpresetan gehiago parte har dezaten.

Y más allá de la negociación colectiva, la Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social tiene asimismo la responsabilidad de coordinar la Mesa de Diálogo Social, como el principal foro de concertación entre Gobierno y agentes sociales de las políticas públicas del ámbito sociolaboral. La Mesa de Diálogo Social se ha consolidado como un instrumento básico en el diseño y puesta en marcha de políticas públicas, especialmente las políticas de empleo, ya que la Ley Vasca de Empleo dota la gobernanza de las políticas públicas de empleo de liderazgo y coherencia institucionales, que comparte protagonismo con los agentes sociales a través de la Mesa de Diálogo Social y refuerza el protagonismo del diálogo social en la definición de la política de empleo, situando a la Mesa de Diálogo Social en uno de los ejes de la gobernanza.

Para ello, durante el ejercicio 2027 se han previsto partidas específicas para la mejora de la asistencia técnica a la Mesa de Diálogo Social, que le permita realizar su labor con mayor facilidad y eficacia. Además, el principal objetivo será la aprobación de un Anteproyecto de Ley de Participación Institucional, ya en tramitación, para cumplir con el compromiso del Gobierno para esta legislatura, de fijar el marco jurídico de la participación de las organizaciones sindicales y empresariales, desde el reconocimiento de la relevancia que estas organizaciones tienen en nuestra sociedad y su contribución al desarrollo económico y social junto al bienestar de la ciudadanía.

El objetivo transversal a todas las políticas de trabajo es la igualdad de mujeres y hombres en el mercado de laboral. Para ello, mantenemos en 2027 nuestra apuesta por la lucha contra la Brecha Salarial de Género, como consecuencia económica de las distintas brechas laborales de género: segmentación vertical o techo de cristal y horizontal o segmentación del mercado laboral, el tiempo de trabajo, las tasas de actividad, etc.

Durante 2027 se desarrollará el III Plan Operativo para la Reducción de la Brecha Salarial, impulsando las actuaciones previstas y reforzando la coordinación y el seguimiento entre los departamentos implicados para asegurar el cumplimiento de sus objetivos.

En otro orden de cosas, el Departamento de Economía, Trabajo y Empleo, tiene entre sus competencias las relacionadas con la Economía Social. El apoyo del Departamento a la Economía Social se considera fundamental para la creación de empleo de calidad. Esta forma alternativa para crear proyectos empresariales donde la persona está en el centro, se considera de especial importancia para alcanzar un crecimiento económico que llegue a todas las personas, a través de un empleo de calidad e inclusivo, que mejora los índices de igualdad y permite el desarrollo de proyectos empresariales robustos, innovadores y con arraigo territorial. Por ello, se ha de destacar, durante el año 2027, se desplegará el segundo Plan Interdepartamental de la Economía Social. Este plan debe tener como objetivo el desarrollo del emprendimiento colectivo que incluya, no sólo el apoyo a nuevos proyectos cooperativos y su fortalecimiento, sino también fomentar la transformación de empresas de capital en empresas cooperativas, para aumentar la participación de las personas trabajadoras en las empresas.

Eta, aldi berean, Abangoardiako Nazioarteko HUBa (ASSET, Arizmendiarrieta Social Economy Think Thank) Europa osorako garatzearen alde egiten jarraitzen dugu, Espainiako Gizarte Ekonomia lehen mailako jardunbide egokitzat har dezan. Erreferentziazko HUB bat, berrikuntza estrategikoko sistema baten epizentroa den aldetik, gizarte-ekonomiaren garapen eta berrikuntza handiagoa sustatzera bideratutako hainbat jarduera biltzen dituena, eta honako helburu hauek izango dituena, besteak beste: estrategiak identifikatzea eta planteatzea, jardunbide egokiak, ekonomia inklusiboko formula berriak, gizarte-eragina ebaluatzeko metodoak, eraldaketa digitaletik eta ingurumenetik eratorritako ekintzailetza kolektiboko eredu berriak, eta abar; Gizarte Ekonomia Espainiako ekonomian BPGd-ren protagonista gero eta gehiago izan dadin.

Lan arloko gai estrategiko horiek guztiek finkapena behar dute, eta hori aurrekontu-partiden bitartez gauzatzen da.

LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA ZUZENDARITZA

Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak, ekitaldi honetan, lan-arloko eta lan-arriskuen prebentzioko indarreko araudiaren arabera lan-agintaritza gisa dagozkion eskumenak egikarituko ditu. Lan-administrazioak bere eginkizuna bete behar du, hau da, lan-baldintzak behar bezala aplikatzen lagundu behar du, ikuskaritza- eta aholkularitza-eginkizunak betez, eta enpresa guztietan lan-araudia behar bezala betetzeko eta garatzeko formula zehatzak erakutsiz, lan-iruzurrari aurre eginez eta, beraz, aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialeko kontratuak lege-iruzur bihurtzeko planifikatutako gure ikuskapen-ekintzan berretsiz. Laneko Ikuskaritza kantitatean eta kalitatean indartzea gure zereginaren ezaugarri izango da.

Gainera, lan-eremuan gizarte-eragileekin elkarrizketa arina sustatuko du, lan-harreman baketsuak lortzeko, eta, laneko gatazka kolektiboetan bitartekaritzaren bidez, gatazka horietan inplikatutako alderdientzat baliagarriak diren irtenbideak bultzatuko ditu. Eta, aldi berean, gizarte-eragileak indartuko ditu, enpresa-elkarteen eta erakunde sindikalen giza baliabideen prestakuntza sustatuz, bai eta funts ekonomikoak emanez ere, esleitu zaizkien konstituzio-eginkizunak bete ahal izan ditzaten.

Eta, oro har, administrazio-prozedura berriak sartuko ditu Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzaren eta lurralde-ordezkaritzen kudeaketan, zerbitzua ematean kalitate- eta eraginkortasun-maila handiagoak lortzeko, eta egoera soziolaboralaren bilakaerari buruzko estatistikak eta datuak argitaratuko ditu, baita gai horri buruzko monografikoak ere.

Bestalde, Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzari atxikitako Euskal Laneko Ikuskaritzak laneko legeriaren arloan esleituta dituen eskumenak garatuko ditu, horretarako beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide materialekin.

Y al tiempo, seguimos apostando por el desarrollo del HUB Internacional de Vanguardia, ASSET, Arizmendiarrieta Social Economy Think Thank, para que se convierta en referente para toda Europa y que posicione la Economía Social española como una buena práctica de primer orden. Un HUB referente, que, como epicentro de un sistema de innovación estratégico, incorpora una serie de actuaciones encaminadas a fomentar un mayor desarrollo e innovación de la economía social y que tendrá entre sus objetivos: la identificación y planteamiento de estrategias, buenas prácticas, nuevas fórmulas de economía inclusiva, métodos de evaluación de impacto social, nuevos modelos de emprendimiento colectivo derivados de la transformación digital y medioambiental, etc; para que la Economía Social sea cada vez más protagonista del PIB en la economía española.

Todas estas cuestiones estratégicas del área de Trabajo necesitan de una consolidación que se traslada a través de las diferentes partidas presupuestarias. .

DIRECCIÓN DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

La Dirección de Trabajo y Seguridad Social centrará su actividad, en el presente ejercicio, en ejecutar las competencias que como autoridad laboral le corresponden según la normativa vigente en materia laboral y en la de prevención de riesgos laborales. La administración laboral debe desplegar su función, facilitadora de la correcta aplicación de las condiciones de trabajo, mediante el ejercicio de las funciones inspectoras y consultoras, y mostrando las precisas fórmulas del correcto cumplimiento y desarrollo de la normativa laboral en todas las empresas, combatiendo el fraude laboral y por lo tanto, reafirmándonos en nuestra acción inspectora planificada en la transformación de los contratos temporales y los contratos a tiempo parcial en fraude de ley. Reforzar la Inspección de Trabajo en cantidad y calidad será seña de identidad de nuestro quehacer.

Además, promoverá un diálogo fluido con los agentes sociales en el ámbito laboral a fin de conseguir unas relaciones laborales pacíficas, e impulsará, a través de la intermediación en los conflictos colectivos de trabajo, soluciones válidas para las partes implicadas en los mismos. Y al tiempo, reforzará a los agentes sociales a través del fomento a la formación de los recursos humanos de las asociaciones empresariales y organizaciones sindicales, así como con la puesta a su disposición de fondos económicos, que les permitan cumplir las funciones constitucionales que tienen atribuidas.

Y en general, introducirá nuevos procedimientos administrativos en la gestión de la Dirección de Trabajo y Seguridad Social y de las delegaciones territoriales para lograr mayores niveles de calidad y eficiencia en la prestación del servicio y publicará estadísticas y datos de evolución de la situación sociolaboral, así como monográficos sobre esta materia.

Por otro lado, la Inspección de Trabajo Vasca, adscrita a la Dirección de Trabajo y Seguridad Social, desarrollará las competencias que tiene atribuidas en materia de legislación laboral con los recursos humanos y materiales necesarios para ello.

Bestalde, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde autonomoari egindako transferentziak jasotzen dira, lanpostuan langileen segurtasuna, higienea eta osasuna sustatzeari buruz Erakundeak egiten dituen jarduera guztiak finantzatzeko.

En otro orden de cosas, se contemplan las transferencias al organismo autónomo Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laboral-OSALAN, con el objetivo de financiar todas las actividades del Instituto que se refieren a la promoción de la seguridad, higiene y salud de las y los trabajadores en el puesto de trabajo.

GIZARTE EKONOMIAREN ZUZENDARITZA

Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak, gainera, 2027rako dagozkion eskumenak garatuko ditu, eta, horregatik, indarrean dagoen araudia eguneratzen jarraituko du, Kooperatiben Erregistroaren Erregelamendua aldatzeko izapideekin jarraituz, erregistro-liburuak formatu digitalean eramateko gaitzeko eta gizarte-ekimeneko eta onura publikoko kooperatiben dekretuak eguneratzeko prozedurari ekiteko.

Era berean, gizarte-ekonomiaren sustapenaren eremuan, urteko laguntza arruntak (gizarte-ekonomiako ekintzailetza, bazkideak sartzea, prestakuntza espezifikoa, laguntza teknikoa, gizarte-ekonomiako erakundeen elkartze-egiturak sendotzea, interkooperazioa, langileen parte-hartzea eta enpresen gizarte-erantzukizuna) finkatuko dira, berriz diseinatu ondoren, gizarte-ekonomiaren egungo premietara egokitzeko.

Gizarte-ekonomia sustatzera eta sustatzera bideratutako baliabideen kudeaketari dagokionez, gizarte-ekonomiako enpresen sorrera, enpresa eta sozietate gisa sendotzea eta gizarte-ekonomiaren printzipioen hedapena bultzatzeko funtsezko ardatzen jarraitutasuna mantentzen da, sektorea ordezkatzen duten erakundeekin koordinatuta eguneratuta. Horretarako, behar diren tresnak jarriko ditu:

1. Gizarte-ekonomiako enpresak (kooperatibak eta lan-sozietateak) sortzeko eta mantentzeko sustapena eta aholkularitza, bai eta gizarte-ekonomiako enpresa-proiektu berriak eskualdeka garatzea ere, tokiko garapenari lagunduz. Merkataritza-enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihur daitezen sustatzea, eta proaktiboki inplikatzea zailtasunak dituzten kooperatibetan eta lan-enpresetan.

2.Gizarte-ekonomiako enpresetan pertsonen zentraltasuna sendotzea, gizarte-ekonomiako enpresen kapital soziala eta sozietate-oinarria indartuz, kolektibo jakin batzuen nahitaezko ekarpenaren harpidetza erraztuz, erakunde horietako bazkide gisa sar daitezen.

3.Gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntza-jarduera espezifikoak sustatzea, argitalpenak zabaltzea, dibulgazio-ekitaldiak egitea eta gizarte-ekonomiaren arloan ikerketa berritzaileak eta erabilgarriak egitea.

4.Gizarte-ekonomiako, lan autonomoko, enplegu-zentro berezietako eta ekonomia solidarioko elkarte-egiturak babestea.

5.Gizarte-ekonomiako enpresen arteko lankidetza sustatzea, haien artean eta gizarte-ekonomiatik kanpoko enpresekin.

DIRECCIÓN DE ECONOMÍA SOCIAL

La Dirección de Economía Social para el 2027 desarrollará además las competencias que le son propias y por ello continuará con la actualización de la normativa existente, continuando con la tramitación de la modificación del Reglamento del Registro de Cooperativas para habilitar la llevanza de los libros registrales en formato digital e iniciar el procedimiento de actualización de los decretos de cooperativas de iniciativa social y de utilidad pública.

Asimismo, en el ámbito de fomento de la economía social, se procederá a la consolidación, tras su rediseño, de las ayudas ordinarias anuales (emprendimiento en economía social, incorporación de socios, formación específica, asistencia técnica, consolidación de estructuras asociativas de entidades de economía social, intercooperación, participación de los trabajadores y responsabilidad social empresarial) para adaptarlas a las necesidades actuales de la economía social.

En lo relativo a la gestión de los recursos destinados al fomento y promoción de la economía social, se mantiene la continuidad, actualizada en coordinación con las organizaciones representativas del sector, de los ejes fundamentales de impulsar la creación de empresas de economía social, su consolidación como empresas y como sociedades, y la difusión de los principios de la economía social. Para ello, habilitará los instrumentos necesarios en orden a:

1. La promoción y asesoramiento para crear y mantener empresas de economía social: cooperativas y sociedades laborales, así como el desarrollo comarcalizado de nuevos proyectos empresariales de economía social, apoyando el desarrollo local. Incentivar la transformación de empresas mercantiles en empresas de economía social e implicarse proactivamente en la reactivación de empresas cooperativas y laborales en dificultades.

2.Afianzar la centralidad de las personas en las empresas de economía social a través del reforzamiento del capital social y de la base societaria de dichas las empresas de economía social, facilitando la suscripción de la aportación obligatoria de determinados colectivos, para su incorporación como socios de dichas entidades.

3.El fomento de actividades formativas específicas en economía social, la difusión en publicaciones, la realización de eventos divulgativos y la realización de investigaciones innovadoras y útiles en el ámbito de la economía social.

4.El apoyo a las estructuras asociativas de la economía social, del trabajo autónomo, de los centros especiales de empleo y de la economía solidaria.

5.El fomento de la intercooperación entre empresas de economía social, entre ellas y también con empresas ajenas al mundo de la economía social.

6.Enpresen gizarte-erantzukizuna zabaltzea euskal enpresetan, batez ere ETEetan, eta euskal enpresetan jasangarritasun-memoriak ezartzen laguntzea.

7.Laguntza ematea Euskadiko Gizarte Ekonomiaren Behatokiari.

ENPLEGU ETA GIZARTERATZE SAILBURUORDETZA

2026. urtea jarduera handiko aldia izan da Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzarentzat. Enpleguaren eremuan, Enpleguari buruzko 15/2023 Legearen hedapen eraginkorraren ondorioz, eta gizarteratzearen eremuan, gizarteratzeko zuzendaritza espezifikoa finkatzearen ondorioz, gizarteratzeko eta laneratzeko politikak bultzatu eta egituratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legeak ezartzen dituen betebeharrak betetzeko.

Horien artean zeuden, enpleguaren arloan, hainbat arau-garapen, Politika Publikoen Euskal Kontseilua eta Enpleguaren Euskal Foroa bezalako organoak sortzea, zerbitzu-zorroa arautzea eta Enpleguaren Euskal Sarerako tresna komunak sortzea, edo Enplegu eta Toki Garapeneko Planak abian jartzea, Lanbide zuzenbide pribatuko erakunde publiko bihurtzea ahaztu gabe.

Inklusioaren arloan, berriz, Inklusiorako Euskal Sistema sendotzea; gobernantza- eta partaidetza-organoak indartzea, hala nola Inklusiorako Erakundearteko Organoa edo Inklusiorako Euskal Kontseilua, inklusio-plan operatiboaren ebaluazioa edo bazterketa-arriskuan dauden kolektibo eta pertsona guztien inklusioa lortzeari lotutako ekintzak bultzatzea gizarte-zerbitzuen, etxebizitzaren, osasunaren eta hezkuntzaren arloan eskumena duten sailekin lankidetza estuan, eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeekin elkarrizketan eta lankidetzan.

2027ko ekitaldirako aurrekontuaren helburua da abian jarritako ekimenak finkatzea, hala nola lan-historia bakarra edo enpleguko eta tokiko garapeneko planak eta Enpleguaren Legearen gainerako edukiak garatzea, hala nola enpleguaren informazio- eta jarraipen-sistema, enplegu-planen jarraipena egiteko tresnak edo ebaluazio-tresnak; hori guztia inplikatutako eragile guztiekin koordinatuta.

Era berean, eta aurreko urteetan gizarteratzearen eta sektore arteko ibilbide mistoen eremuko proiektu esperimentalak garatu eta ebaluatu ondoren, Gizarteratzeko V. Euskal Planaren 2023-2024 Plan Operatiboaren inplementazioaren zati gisa, 2027an, inpaktu, egokitasun eta eskalagarritasun handia erakutsi duten proiektu esperimentalak sendotu eta orokortuko dira, eta gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide mistoen ereduaren pixkanakako hedapenean aurrera egingo da, aurreko urteetan izandako ibilbideak sendotuz, bai eta hezkuntza-, justizia- eta etxebizitza-sistemak inplikatuko dituzten eta gizarte-errealitate berriei arreta emango dieten ibilbide misto berriak abian jarriz ere.

6.Difusión de la Responsabilidad Social Empresarial en las empresas vascas, especialmente en las pymes, y apoyo en la implantación de memorias de sostenibilidad en las empresas vascas.

7.Apoyo al Observatorio Vasco de Economía Social de Euskadi-OVES.

VICECONSEJERÍA DE EMPLEO E INCLUSIÓN

El año 2026 ha sido un periodo de intensa actividad para la Viceconsejería de empleo e inclusión. En el ámbito del empleo, derivada del despliegue efectivo de la Ley 15/2023 de Empleo y en el ámbito de la inclusión, como consecuencia de la consolidación de la dirección específica para la inclusión, con objeto de impulsar y vertebrar las políticas de inclusión socio-laboral y dar cumplimiento a las obligaciones que impone la Ley 14/2022 del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión.

Entre ellos se encontraban, en el área de empleo, varios desarrollos normativos, la creación de órganos como el Consejo Vasco de Políticas Públicas y el Foro Vasco de Empleo, la regulación de la cartera de servicios y la creación de los instrumentos comunes para la Red Vasca de Empleo o la puesta en marcha de los Planes de Empleo y Desarrollo Local, sin olvidar la transformación de Lanbide en ente público de derecho privado.

Y en el área de la inclusión, la consolidación del Sistema Vasco para la Inclusión, el fortalecimiento de los órganos de gobernanza y participación, como el Órgano interinstitucional para la Inclusión o el Consejo Vasco para la Inclusión, la evaluación del plan operativo de inclusión o el impulso de acciones vinculadas a la consecución de la inclusión de todos los colectivos y personas en riesgo de exclusión, en estrecha colaboración con los departamentos competentes en materia de servicios sociales, vivienda, salud, y educación, y en diálogo y colaboración con las Entidades del Tercer Sector Social de Euskadi.

El presupuesto para el ejercicio 2027, tiene como objetivo, la consolidación de las iniciativas puestas en marcha tales como la historia laboral única o los planes de empleo y desarrollo local y en el desarrollo del resto de contenidos de la Ley de Empleo, como el sistema de información y seguimiento de empleo, los instrumentos para el seguimiento de los planes de empleo o las herramientas de evaluación, todo ello en coordinación con el conjunto de agentes implicados.

Asímismo, y tras el desarrollo y evaluación en años anteriores de Proyectos Experimentales en el ámbito de la inclusión y de itinerarios mixtos intersectoriales, como parte de la implementación del Plan Operativo 2023-2024 del V Plan Vasco de Inclusión, en el año 2027, se consolidarán y generalizarán los proyectos experimentales que han mostrado tener un alto impacto, pertinencia y escalabilidad y se avanzará en el despliegue gradual del modelo de itinerarios mixtos de inclusión socio-laboral, a través de la consolidación de los itinerarios que han sido experimentados en años anteriores, así como de la puesta en marcha de nuevos itinerarios mixtos que involucren a los sistemas de educación, justicia, vivienda, y atiendan nuevas realidades sociales.

ENPLEGU ZUZENDARITZA

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak rol berriak ezartzen dizkio Enplegu zuzendaritzari, Enpleguari buruzko 15/2023 Legearen arabera, honako hauei lotuta: enplegu-politika publikoen tokiko dimentsioa bultzatzeko ekimenen garapenari, Enpleguaren Euskal Sarean integratzeko eta bertan behera uzteko prozedurei, sare horren ikuskaritzari eta enplegu-zerbitzuen kalitatearen kontrolari.

Gainera, Enplegu Zuzendaritzak Euskadiko enplegu-politika publikoen, Enpleguaren Euskal Estrategiaren eta Euskadiko hiru urteko enplegu-planaren jarraibide estrategikoak prestatzeko lanak garatuko ditu, bai eta beharrezkoak diren azterlanak, analisiak eta txostenak ere. Eta koordinazio- eta plangintza-tresna horien jarraipena eta ebaluazioa egiteaz arduratuko da.

Enplegu Zuzendaritzak helburu hauek ditu 2027ko aurrekontua egituratzeko:

a) Enplegu-politika publikoa planifikatzea.

b) Enpleguari buruzko 15/2023 Legearen araudia garatzen jarraitzea.

c) Eragileen eta entitateen parte-hartzea sustatzea Enpleguari buruzko 15/2023 Legearen garapenean.

d) Hiru trantsizio globalei lotutako proiektu esperimentalak garatzea: demografia-soziosanitarioa, energetiko-klimatikoa eta teknologiko-digitala.

e) Talentua sortzeko, atxikitzeko eta erakartzeko ekintzak egitea.

f) Komunikatzea eta ezagutza sustatzea.

g) Enplegu-politiketan berrikuntza sustatzea.

GIZARTERATZE ZUZENDARITZA

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak rol berriak ezartzen dizkio Inklusio Zuzendaritzari, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legearen arabera.

Inklusiorako EAEko sistema egituratzeko aurrerapausoak garrantzi berezia izaten jarraitzen du 2027an, sailarteko, sektorearteko eta erakundearteko lana garatuz, eta etengabeko elkarrizketan esku-hartze sozialaren sektoreko entitateekin. Lan-merkatutik urrunen dauden pertsonak gizarteratzeko, erantzun integral eta konplexuak behar dira, eta sistema desberdinen parte-hartzea funtsezkoa da.

Inklusio Zuzendaritzaren helburuak, 2027ko aurrekontua artikulatzen dutenak, honako hauek dira:

DIRECCIÓN DE EMPLEO

El Decreto 323/2024 de 5 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo, establece nuevos roles a la Dirección de empleo, de acuerdo con la Ley 15/2023 de Empleo, vinculados al desarrollo de iniciativas que sirvan de impulso a la dimensión local de las políticas públicas de empleo, a los procedimientos de integración y cese en la Red Vasca de Empleo, a la inspección de la citada red y control de la calidad de los servicios de empleo.

Además, la Dirección de Empleo desarrollará los trabajos preparatorios para la elaboración de las directrices estratégicas de las políticas públicas de empleo de Euskadi, de la Estrategia Vasca de Empleo y del plan trienal de empleo de Euskadi, así como los estudios, análisis e informes que resulten necesarios. Y se encargará del seguimiento y evaluación de los citados instrumentos de coordinación y planificación.

Los objetivos de la Dirección de empleo, a partir de los cuales se articula el presupuesto de 2027, son:

a) Planificar la política pública de empleo.

b) Continuar el desarrollo normativo de la Ley 15/2023, de empleo.

c) Fomentar la participación de agentes y entidades en el desarrollo de la ley 15/2023 de Empleo.

d) Desarrollar proyectos experimentales vinculados a las tres transiciones globales: demográfica-sociosanitaria, energética-climática y tecnológica-digital.

e) Realizar acciones encaminadas a la generación, retención y atracción del talento.

f) Comunicar y fomentar el conocimiento.

g) Fomentar la innovación en las políticas de empleo.

DIRECCIÓN DE INCLUSIÓN

El Decreto 323/2024 de 5 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo, establece nuevos roles a la Dirección de inclusión de acuerdo con la Ley 14/2022 del Sistema Vasco de Garantia de Ingresos y para la Inclusión.

El avance en la vertebración del sistema vasco de inclusión es un objetivo que continúa teniendo especial relevancia en el año 2027, a partir del desarrollo de un trabajo interdepartamental, intersectorial e interinstitucional, y en constante diálogo con las entidades del tercer sector de intervención social. La inclusión social de las personas que se encuentran más alejadas del mercado laboral, requiere respuestas integrales y complejas, donde la participación de diferentes sistemas, es fundamental.

Los objetivos de la Dirección de inclusión, a partir de los cuales se articula el presupuesto de 2027, son:

a) Inklusio politika publikoa planifikatzea, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legearen arabera.

b) Inklusiorako Euskal Sistemaren egituraketan aurrera egitea.

c) Inklusio-proiektuak, esperimentalak eta berritzaileak garatzea.

d) Inklusio-politiketan ezagutza eta berrikuntza sustatzea eta zabaltzea.

a) Planificar la política pública de inclusión, de acuerdo con la ley 14/2022 del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión.

b) Avanzar en la vertebración del Sistema Vasco para la inclusión.

c) Desarrollar proyectos de inclusión, experimentales e innovadores.

d) Fomentar y difundir el conocimiento y la innovación en las políticas de inclusión.

EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA, EUSTAT

Euskal Estatistika Erakundea, Eustat, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari atxikita dago.

Datuaren ekonomia funtsezko zutabe bihurtu da hazkunde ekonomikorako eta berrikuntzarako. Datuak adimen artifiziala, azterketa prediktiboa eta zerbitzuen pertsonalizazioa bultzatzen dituen motorra dira, eta enpresei eragiketak optimizatzen eta erabakiak hobeto hartzen laguntzen diete.

INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA, EUSTAT

El Instituto Vasco de Estadística, Eustat, está adscrito a la Consejería de Economía Trabajo y Empleo.

La economía del dato se ha consolidado como un pilar fundamental para el crecimiento económico y la innovación. Los datos son el motor que impulsa la inteligencia artificial, el análisis predictivo y la personalización de servicios, permitiendo a las empresas optimizar operaciones, mejorar la toma de decisiones.

PROGRAMA

3110 EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA. EGITURA ETA LAGUNTZA

ARDURADUNA

EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA
KABINETE ZUZENDARITZA
ZERBITZU ZUZENDARITZA
KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA

PROGRAMA

3110 ESTRUCTURA Y APOYO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO

RESPONSABLE

ECONOMIA, TRABAJO Y EMPLEO
DIRECCIÓN DE GABINETE
DIRECCIÓN DE SERVICIOS
DIRECCIÓN DE COMUNICACIÓN

MEMORIA

Zerbitzu Zuzendaritzak, Kabinetearen Zuzendaritzak eta Komunikazio Zuzendaritzak garatzen dute egitura- eta babes-programa. Programaren helburua, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko zuzendaritzei babes-zerbitzuak ematea da, baita gainerako sailekin koordinatzea ere.

Kabinetearen Zuzendaritza saileko programaren plangintza eta jarraipena egiteaz, haren kanpo-jarduerez eta sustatutako ekitaldi publikoez eta ofizialez arduratzen da, sailaren kanpo-harremanak kudeatzen ditu, esaterako, Eusko Legebiltzarrarekin eta Arartekoarekin.

Zuzendaritza honek bere gain hartzen ditu Sailaren eta Eusko Legebiltzarraren arteko harremanak, eta erantzuna ematen die Legebiltzarreko ekimenei, idatziz erantzuteko galderei, informazio-eskaerei, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko galderei, Batzordean egindako agerraldiei, bai norberaren ekimenez, bai Legebiltzar Batzordeak berak eskatuta, interpelazioei eta Batzordean ahoz erantzuteko galderei.

Kabinetearen Zuzendaritzaren lanaren beste alderdi bat da beste erakunde publiko batzuetatik (Arartekoa, esaterako) datozen kontsultei sailetako zuzendaritzek emandako erantzun dokumentatuak bideratzea.

Komunikazio Zuzendaritza arduratzen da saileko komunikazio-politika zehazteaz, zuzentzeaz eta koordinatzeaz, sailaren jarduerak, erabakiak eta politikak behar bezala hedatzen eta zabaltzen direla bermatzeko, bai informazio- eta prentsa-kanalen bidez, bai publizitate-kanalen bidez. Beste erantzukizun bat Eustat eta Osalan erakunde autonomoekiko eta Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoarekiko komunikazioa koordinatzea da.

El programa de estructura y apoyo se desarrolla por la Dirección de Servicios, la Dirección de Gabinete y la Dirección de Comunicación. Este programa está concebido para facilitar los servicios de apoyo a las diferentes Direcciones del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo, y la coordinación con el resto de Departamentos.

La Dirección de Gabinete se ocupa de la planificación y seguimiento del programa del Departamento, actividades externas del mismo y actos públicos y oficiales promovidos por éste. Se ocupa también de la gestión de las relaciones externas, por ejemplo, con el Parlamento Vasco y con el Ararteko.

Esta Dirección asume las relaciones del Departamento con el Parlamento Vasco, dándose respuesta a las iniciativas parlamentarias, preguntas para respuesta por escrito, solicitudes de información, preguntas para respuesta oral en Pleno, comparecencias en la Comisión, tanto a petición propia como de la propia Comisión Parlamentaria, interpelaciones y preguntas para su respuesta oral en Comisión.

Otra faceta del trabajo de la Dirección de Gabinete es la canalización de las respuestas documentadas de las Direcciones departamentales a las consultas provenientes de otras instituciones públicas, como el Ararteko.

La Dirección de Comunicación se ocupa de definir, dirigir y coordinar la política de comunicación departamental para garantizar una correcta difusión y divulgación de las actividades, decisiones y políticas del Departamento, tanto a través de los canales de información y prensa como de los publicitarios. Otra de sus responsabilidades es la coordinación de la comunicación con los organismos autónomos Eustat, Osalan y con el ente público de derecho privado «Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo».

Era berean, Sailari esleitutako webgunea eta sare sozialak zein Irekia ataria mantentzea eta horiek eguneratzea dagokio, herritarrei informazioa eta arreta emateko zerbitzuei erantzutea, Zuzenean, bere eskumeneko arloetan solaskide eraginkorrak daudela ziurtatuz, eta informazioa eskuratzeko eskaerak ebaztea.

Zuzendaritza honek Sailaren urteko argitalpen-programa ere egiten du, Argitalpen Zerbitzu Nagusiarekin lankidetzan.

Zerbitzu Zuzendaritzaren egitekoak, bestalde, langileak, aurrekontuen kudeaketa eta kontrola, kontratazioa eta hizkuntza-normalizazioa dira, bai eta oro har sailari babesa ematea ere (informatika, genero-berdintasuna, liburutegia, eta abar). Halaber, saileko aholkularitza juridikoa gauzatzen du eta haren eskumenekoak diren gaien inguruko arauak garatzeko ardura du.

Zuzendaritza honek, besteak beste, honako zerbitzuon ardura dauka:

- Zerbitzu juridikoa: gai juridikoei buruzko aholkatze lanak eta kudeaketa.

- Kudeaketa ekonomikoa: aurrekontua lantzea eta haren jarraipena eta kontrola egitea. Aldez aurreko kontu hartzea eta kudeaketa-arlo desberdinei informazioa ematea.

- Kontratazio: Sailaren eskumenekoak diren administrazio-kontratazioko espedienteak izapidetzea, formalizatzea eta ebaztea.

- Antolamendua eta informatika: prozedurak definitu, ezarri, auditore-lanak egin, etengabe hobetu eta, beharrezkotzat jotzen denean, prozesuak mekanizatzea.

- Gainera, programaren bidez hurrengo programa honen aurrekontu-zuzkidura finantzatzen da, transferentzia erabilita: 3110 Programa, «Lana eta Enplegua», Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoarena.

De igual manera, le corresponde el mantenimiento y actualización tanto de la web y redes sociales asignados al Departamento y en el portal Irekia, atender los servicios de información y atención a la ciudadanía, Zuzenean, asegurando la existencia de interlocutores operativos en las diferentes materias de su ámbito competencial, y resolver las solicitudes de acceso a la información.

También desde esta Dirección se elabora el programa anual de publicaciones del Departamento en colaboración con el Servicio Central de Publicaciones.

La Dirección de Servicios es el órgano responsable de las materias de personal, gestión y control presupuestario, contratación, normalización lingüística y de apoyo general al Departamento (informática, igualdad de género, biblioteca, etc.). Así mismo, realiza la asesoría jurídica del Departamento y es la responsable del desarrollo normativo en materias de competencia del Departamento.

Esta Dirección es responsable entre otros, de los siguientes servicios:

- Servicios jurídicos: asesoría y gestión de los asuntos jurídicos.

- Gestión económica: elaborar el presupuesto y realizar el seguimiento y control del mismo. Intervención previa y suministro de información a las distintas áreas de gestión.

- Contratación: tramitación, formalización y resolución de expedientes de contratación administrativa que competen al Departamento.

- Organización e informática: apoyo en la definición, implantación, auditoria y mejora continua de los procesos incluyendo, en su caso, la mecanización de los procedimientos resultantes.

- Así mismo, a través de este Programa se financia la dotación presupuestaria, vía transferencia, del Programa 3110 «Estructura y Apoyo de Trabajo y Empleo» del ente público de derecho privado «Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo».

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. SAILAREN, LEGEBILTZARRAREN, ARARTEKOAREN ETA HERRITARREN KANPO-HARREMANAK		**1. RELACIONES EXTERNAS DEL DEPARTAMENTO, PARLAMENTO, ARARTEKO Y CIUDADANÍA**
1. Sailaren elkarrizketa-kanalak.		1. Canales de diálogo del Departamento.
Sailaren kanpo-harremanak koordinatzea	**240**	Coordinación de relaciones externas del Departamento
Sailburuak Eusko Legebiltzarrean egin beharreeko agerraldiei buruzko aholkuak eta argibideak ematea eta, oro har, Eusko Legebiltzarrekiko edo beste administrazio batzuekiko harremak ematea	**230**	Establecer y asesorar las comparecencias del Consejero ante el Parlamento Vasco y, en general, el mantenimiento de las relaciones con el Parlamento Vasco u otras administraciones
Arartekoarekiko harremana	**275**	Relación con el Ararteko

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
2. SAILA OSATZEN DUTEN ZUZENDARITZEK GARATZEN DITUZTEN JARDUERAK KOMUNIKABIDEEI ZABALTZEA ETA ARGITALPEN PLANA EGITEA ETA KUDEATZEA		**2. DIFUSIÓN A LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN DE LAS ACTIVIDADES QUE DESARROLLAN LAS DIRECCIONES QUE INTEGRAN EL DEPARTAMENTO Y ELABORACIÓN Y GESTIÓN DEL PLAN DE PUBLICACIONES**
1. Komunikabideei zabaltzea.		1. Difusión a los medios de comunicación.
Prentsa-oharrak eta informazioaren profesionalekin komunikatzeko beste edozein modu, Sail honen eskumeneko gaiei dagokienez	**350**	Notas de prensa y cualquier otra forma de comunicación con los/as profesionales de la información en todo lo relativo a las cuestiones de competencia de este Departamento
Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuaren eta Saileko kargu guztien prentsaurrekoak, elkarrizketak eta agerraldi publikoak kudeatzea	**200**	Gestión de las ruedas de prensa, entrevistas y comparecencias públicas del Vicelehendakari Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo y del conjunto de cargos del Departamento
Edukiak mantentzea eta eguneratzea Albistegiak Irekia-ko eta saileko webguneetan	**500**	Mantenimiento y actualización de contenidos informativos en las webs de Irekia y Departamental
Sailak garatzen dituen informazio-kanpainak eta jardueren zabalkundea, eta gizarte-hedabideekiko harremanak	**15**	Campañas de información y difusión de las actividades que lleva a cabo el Departamento y relación con los medios de comunicación social
Sailaren argitalpenak kudeatzea: hautaketa, argitalpena eta zabalkundea	**5**	Gestión de las publicaciones del Departamento: elección, edición y difusión de las mismas
euskadi.eus eta Irekia postontzien bidez kudeatutako herritarren kontsultak	**350**	Consultas ciudadanas gestionadas a través del buzón euskadi.eus y de Irekia
Sare sozialen bidezko komunikazioak	**1.400**	Comunicaciones a través de redes sociales
3. LAGUNTZA JURIDIKOA		**3. ASESORÍA JURÍDICA**
1. Txosten jurikikoak eta araudia.		1. Informes jurídicos y normativa.
Xedapen orokorrei buruzko txosten juridikoak prestatzea	**8**	Informes jurídicos sobre disposiciones de carácter general
Sailaren Aginduei buruzko txosten juridikoak prestatzea	**25**	Informes jurídicos sobre Ordenes departamentales
Sailaren lankidetza-hitzarmenei buruzko txosten juridikoak prestatzea	**7**	Informes jurídicos sobre convenios de colaboración del Departamento
Gobernu Kontseiluaren Akordioen proposamenei buruzko txosten juridikoak prestatzea	**9**	Informes jurídicos sobre Propuestas de Acuerdo de Consejo de Gobierno
Sailaren ordezkarien izendapenen espedienteak	**11**	Expedientes de designación de representantes del Departamento
Saileko Zuzendaritzek planteatutako kontsultei buruzko txosten juridikoak prestatzea	**57**	Informes jurídicos sobre consultas planteadas por las Direcciones del departamento
Urteko Planak prestatzea	**2**	Elaboración de Planes Anuales
Gobernuaren beste sailetako xedapen orokorren inguruko alegazioak	**35**	Alegaciones a disposiciones de carácter general de otros Departamentos del Gobierno

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
4. AURREKONTUEN AURRE-PROIEKTUA PRESTATU, KUDEATU ETA BETETZEN DELA BEGIRATZEA		**4. ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE PRESUPUESTOS, GESTIÓN Y SEGUIMIENTO DE SU EJECUCIÓN**
1. Ekonomia eta aurrekontu kudeaketa.		1. Gestión económica y presupuestaria.
Aurrekontuen aurre-proiektua prestatzea	**1**	Elaboración del Anteproyecto de Presupuestos
Aurreko urteko helburuak betetzeari buruzko txostena	**1**	Informe de cumplimiento de objetivos del año anterior
Aurrekontu-beharrei buruzko txostena	**18**	Informe sobre necesidades presupuestarias
Aurrekontua betearazteko kontrolen ardura	**120**	Controles de ejecución presupuestaria
Legeko artikuluak aztertzea	**1**	Análisis del articulado de la Ley
Kudeaketa eta aurrekontua zer-nola betetzen den begiratzea	**130**	Gestión y Seguimiento de ejecución presupuestaria
Aurrekontuak betearazteko txostenaK	**32**	Informes de ejecución presupuestaria
5. GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA		**5. GESTIÓN DE RECURSOS HUMANOS**
1. Saileko langileen administrazioa.		1. Administrar la plantilla del Departamento.
Lagunen kopurua	**337**	Número de personas
2 Behin-behineko hornidura.		2. Provisión provisional.
Espedienteak izapidetzea	**65**	Tramitar expedientes
3. Behin-betiko hornidura.		3. Provisión definitiva.
Erretiro edo eszedentzia hartzen direnen espedienteak izapidetzea	**30**	Tramitación expedientes por jubilación y excedencias
4. Lanpostuen Zerrenda.		4. Relación de Puestos de Trabajo.
Sortzea eta aldatzea	**15**	Creación y modificación
5. Informazio-eskaerei erantzutea eta zirkularrak egitea.		5. Respuesta a solicitudes de información y elaboración de circulares.
Erantzunak	**300**	Respuestas
Inklusioaren arloan, enplegu egonkor eta kalitatezkoaren sustapenak lotura dauka hala enplegu inklusiboaren sustapenarekin, arreta berezia eskainiz iraupen luzeko langabeei, nola bazterketa-egoeran dauden kolektibo eta pertsona guztien inklusioa lortzeko ekintzak sustatzearekin, lankidetza estuan jardunez gizarte-zerbitzuen, etxebizitzaren, osasunaren eta hezkuntzaren gaietan eskumena duten sailekin eta EAEko hirugarren sektoreko entitateekiko elkarrizketa eta lankidetzan oinarrituta; eta hori guztia Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren eta Inklusiorako Euskal Planaren barruan.

La elaboración del Presupuesto 2027 de la Dirección de Inclusión continúa estando marcada por el impulso estratégico a las políticas de inclusión que se pretende potenciar en la presente legislatura. La creación de esta nueva Dirección de Inclusión en el seno de la Viceconsejería de Empleo e Inclusión y la asignación a la misma de las competencias y funciones recogidas en el Decreto 323/2024, de 5 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo, son reflejo de esta voluntad, como también lo fue la aprobación de sendos decretos que, por primera vez, regularon los órganos de participación y gobernanza, que la Dirección de Inclusión dinamiza y a los que presta apoyo. A saber: el Decreto 5/2024, de 23 de enero, que regula la Comisión Interinstitucional para la Inclusión y el Decreto 307/2024 por el que se regula el Consejo Vasco para la Inclusión.

A la Viceconsejería de Empleo e Inclusión le corresponde el ejercicio de las competencias referidas a la política de empleo, a la formación para el trabajo, sin perjuicio de las funciones de dirección, ordenación y planificación en el ámbito de la formación profesional que tiene atribuidas el Departamento de Educación, así como las referidas al Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión.

En materia de inclusión, la promoción del empleo estable y de calidad se vincula al fomento del empleo inclusivo, prestando especial atención a las personas desempleadas de larga duración, y al impulso de acciones vinculadas a la consecución de la inclusión de todos los colectivos y personas en riesgo de exclusión, en estrecha colaboración con los departamentos competentes en materia de servicios sociales, vivienda, salud, y educación, y en diálogo y colaboración con las Entidades del Tercer Sector Social de Euskadi. Todo ello en el marco del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión y del Plan Vasco de Inclusión.

Inklusio Zuzendaritzaren eginkizunak honako helburu orokor hauen barruan sartzen dira: inklusio-politika publikoa planifikatzea, bat etorriz Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko 14/2022 Legearekin; Inklusiorako Euskal Sistemaren egituraketan aurrera egitea; inklusio-proiektu esperimental eta berritzaileak garatzea eta ezagutza eta berrikuntza sustatu eta zabaltzea.

Inklusio-politika publikoaren planifikazioari dagokionez, Inklusio Zuzendaritzak Inklusiorako Euskal Planaren jarraipena eta inplementazioa egiten du. Plan horretan jasotzen da, modu koordinatuan eta globalean, zein diren esku-hartze eta jarduketarako ildo eta gidalerroak, bazterketa-egoera edo -arriskuan daudenen inklusioa lortzeko administrazio eskudunek gauzatu beharreko jarduera bideratzen dutenak. 2027. urtean, Inklusiorako V. Euskal Plana (2022-2026) ebaluatu behar da, eta Inklusiorako VI. Euskal Plana (2027-2031) egin.

2027. urteko helburuen artean, garrantzi berezia izaten jarraitzen du Inklusiorako Euskal Sistemaren egituraketan aurrera egiteak.

Inklusiorako V. Euskal Planaren eta haren 2023-2024 Plan Operatiboaren inplementazioaren barruan, Proiektu Esperimental berezi eta berritzaileak egin dituzte inklusio-arloko entitate publiko eta pribatuek, eta 2025ean proiektu horien emaitza eta horiek beste eremu edo lurralde batzuetan inplementatzeko aukera ebaluatu ziren. 2026an, proiektu esperimentalak sendotzeko eta orokortzeko estrategia bat garatu zen, inpaktu, egokitasun eta eskalagarritasun handia erakutsi zutenak. Hori 2027. urteko aurrekontuan islatzen da Emakumeak Sarean Indartuz, Emakumeak, Talentua eta Aukerak eta Aurkigune proiektuak garatzeko eta eskalatzeko dirulaguntza izendunetan, hainbat udalerri eta lurraldetan.

Era berean, aurreko urteetan inklusio-ibilbide mistoetan egindako esperimentazio-ibilbidearen ondoren, 2027. urtean inklusiorako ibilbide mistoen eredua pixkanaka hedatzen jarraitu nahi da, bazterketa-errealitate berriei heltzen dieten eta eredua hedatzen laguntzen duten ibilbide berrien esperimentazioaren bidez, sistema berrien inplikazioaren bidez, hala nola etxebizitza, hezkuntza eta justizia, eta erakunde berrien parte-hartzearekin.

Ibilbide mistoen garapenerako, 1.000.000 euroko aurrekontu-zuzkidura aurreikusten da.

Inklusiorako euskal sistema egituratzeko bidean aurrera egiteko asmoz, 2020tik hainbat udalerritan tokiko inklusio-mahaiak ezartzeko esperientzia garatu ondoren, eta 2026an fase pilotuan inklusio mahaien gobernantza-eredu bat ezarri ondoren, 2027an eredua egituraz sendotu nahi da Euskadi osoan. Ildo horretan, Euskadiko inklusio-sistemen arteko koordinaziorako tokiko mahaien berezko gobernantza-eredua dinamizatu eta ezartzeko, aurrekontu-zuzkidura aurreikusten da 2027an, 2028, 2029 eta 2030 urteetarako konpromiso-kreditu banarekin.

Las funciones que competen a la Dirección de Inclusión pueden englobarse en los siguientes objetivos generales: planificar la política pública de inclusión, de acuerdo con la Ley 14/2022 del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión, avanzar en la vertebración del sistema vasco de inclusión desarrollar proyectos de inclusión experimentales e innovadores, y fomentar y difundir el conocimiento y la innovación.

En lo que respecta a la planificación de la política pública de inclusión, la Dirección de Inclusión realiza el seguimiento de la implementación del Plan Vasco de Inclusión, que recoge de forma coordinada y global las líneas y directrices de intervención y actuación que orientan la actividad de todas las administraciones competentes para la consecución de la inclusión de las personas en riesgo o situación de exclusión. En el año 2027, corresponde realizar la evaluación del V Plan Vasco de Inclusión 2022-2026 y la elaboración del VI Plan Vasco de Inclusión 2027-2031.

El avance en la vertebración del sistema vasco de inclusión es un objetivo que continúa teniendo especial relevancia en el año 2027.

Tras el desarrollo de Proyectos Experimentales singulares e innovadores llevados a cabo por entidades públicas y privadas del ámbito de la inclusión, como parte de la implementación del Plan Operativo 2023-2024 del V Plan Vasco de Inclusión, en el año 2025 se realizó la evaluación de sus resultados y su posible escalabilidad a otros ámbitos o territorios. En el año 2026, se desarrolló una estrategia de consolidación y generalización de los proyectos experimentales que mostraron tener un alto impacto, pertinencia y escalabilidad. Esto tiene su reflejo presupuestario en el año 2027 en las correspondientes subvenciones nominativas destinadas al desarrollo y escalado de los proyectos Emakumeak Sarean Indartuz, Mujeres, Talento y Oportunidades, y Aurkigune en diversos municipios y territorios.

Asimismo, después del recorrido de experimentación en itinerarios mixtos de inclusión desarrollado en años anteriores, en el año 2027 se persigue continuar avanzando en el despliegue gradual del modelo de itinerarios mixtos de inclusión mediante la experimentación de nuevos itinerarios, que abordan nuevas realidades de exclusión y contribuyen la extensión del modelo, mediante la implicación de nuevos sistemas, tales como vivienda, educación y justicia, y contando con la participación de nuevas entidades.

Para el desarrollo de itinerarios mixtos se prevé una dotación presupuestaria de 1.000.000 de euros.

Con el mismo fin de avanzar hacia la vertebración del sistema vasco de inclusión, tras la experiencia de implantación de Mesas locales de inclusión que se ha venido desarrollando desde el año 2020 en diferentes municipios, y la implantación en el año 2026 en fase piloto un modelo de gobernanza de las mesas de inclusión, en el año 2027 se pretende consolidar estructuralmente el modelo en el conjunto de Euskadi. En este sentido, para la dinamización e implementación del modelo de gobernanza propio de las mesas locales de coordinación entre sistemas de inclusión en Euskadi, se prevé una dotación presupuestaria en 2027, con sendos créditos de compromiso en los años 2028, 2029 y 2030.

Ildo beretik, inklusiorako V. Euskal Planari lotutako beste jarduera batzuk egingo dira, eta 180.000 euroko zuzkidura ekonomikoa izango dute horretarako. Nabarmentzekoa da 2027an 25 urte beteko direla inklusiorako lehen euskal planetik.

Inklusio Zuzendaritzaren beste misio bat da inklusio-proiektu esperimental eta berritzaileak garatzea. Arlo horretan, 2027an aurreko urteetan desgaitasunen eta laneratze-enpresen eremuan hasitako proiektu estrategiko hauek garatzen jarraituko da: EAEn laneratze-enpresak ezartzeko eta sendotzeko modelizazioa eta sentsibilizazio-, prestakuntza- eta inklusio-jarduerak ikusmen-desgaitasunaren eremuan. Izan ere, 2023 eta 2024an ildo horretan eguneratu eta onartu ziren 152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa erregulatzen dituena, eta 162/2023 Dekretua, urriaren 31koa, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautu eta horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituena.

Era berean, Diversi-Otxar proiektua, Otxarkoaga auzoko dinamizazio komunitario, parte-hartze eta inklusioari buruzkoa, garatzen jarraituko da, eta Sendotu Aldiberean gizarte-inklusiorako proiektua bultzatuko da.

Beste alde batetik, 2027an, 2026an hasitako lan-ildo berriak garatzen jarraituko da eta izaera berritzaile eta esperimentaleko proiektuei bultzatuko dira hainbat eremutan: haur-pobreziaren eremuan; migrazio-eremuan, lan-mugikortasuneko ekimenak sustatuko dira, migrazio-kanal seguruak ziurtatuz (100.000 euroko diru-zuzkidura). Bestalde, ijitoak gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide integratuen Acceder programa garatzeko proiektu berri bat bultzatuko da.

Zainketen eremuan, 2025ean eta 2026an Zainsare guneak abian jarriz orientazio espezializatuko eta bitartekotzako zerbitzuak fase pilotuan ezarri ondoren, 2027an enplegurako eta zaintzarako erreferentziazko tokiko espazio horiek finkatuko dira, Enplegu eta Toki Garapeneko Planetan integratuta, pilotajearen parte izan diren udalerrietan. Era berean, Zainsare espazio berriak ezarriko dira Gasteizen eta Bilbon. Hori aurrekontuan jasota dago aurreikusitako dirulaguntza izendunetan.

Gainera, 2027an, inklusiorako etikaren arloko ekintza-ildo estrategiko berri bat bultzatuko da.

Azkenik, ezagutza eta berrikuntza sustatu eta zabaltzeko helburuarekin, 2027an VII. Inklusio Jardunaldia egingo da, inklusioaren arloan sistema ezberdinetan (enplegua, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, osasuna eta hezkuntza) lan egiten duten profesionalen arteko eztabaida- eta hausnarketa-foro moduan.

En la misma línea, se llevarán a cabo otras actividades vinculadas al V plan vasco de inclusión, contando para ello con una dotación económica de 180.000 euros. Es de destacar que en el año 2027 se cumplirán 25 años del primer plan vasco de inclusión.

Desarrollar proyectos de inclusión experimentales e innovadores constituye otra misión de la Dirección de Inclusión. En este ámbito, en 2027 se continuará con el desarrollo de los proyectos estratégicos iniciados en años anteriores en el ámbito de la discapacidad y las empresas de inserción, a saber, la modelización para la implantación y consolidación de las empresas de inserción en Euskadi, y actividades de sensibilización, formación e inclusión en el ámbito de la discapacidad visual. No en vano en los años 2023 y 2024 se actualizaron y aprobaron el Decreto 152/2023, de 17 de octubre, por el que se regulan los programas y servicios relacionados con la empleabilidad de las personas con discapacidad de la CAE, y el Registro Vasco de Centros Especiales de Empleo, y el Decreto 16/2023, de 31 de octubre, por el que se regula la calificación de empresas de inserción y se establece el procedimiento de acceso a las mismas y su registro.

Asimismo, se continuará desarrollando el proyecto Diversi-Otxar de dinamización comunitaria, participación e inclusión en el barrio de Otxarkoaga, y se apoyará el proyecto para la inclusión social Sendotu Aldiberean.

Por otra parte, en el año 2027 se continuarán desarrollando las nuevas líneas de trabajo iniciadas en 2026 vinculadas a proyectos de carácter innovador y experimental, en el ámbito de la pobreza infantil y en el ámbito migratorio, con iniciativas de movilidad laboral a través de canales de migración segura a las que se destinará una dotación económica de 100.000 euros. Por otro lado, se apoyará un nuevo proyecto para el desarrollo del programa Acceder, de itinerarios integrados de inclusión sociolaboral para la población gitana.

En el ámbito de los cuidados, tras la implementación en fase piloto realizada en 2025 y 2026 de servicios de orientación especializada e intermediación a través de la puesta en marcha de los espacios Zainsare, en el año 2027 se consolidarán dichos espacios locales de referencia para el empleo y los cuidados, integrados en los Planes de Empleo y Desarrollo Local, en los municipios que han formado parte del pilotaje. A su vez, se implementarán nuevos espacios Zainsare en Vitoria-Gasteiz y en Bilbao. Esto tiene su reflejo presupuestario en las correspondientes subvenciones nominativas previstas.

Además, en el año 2027 se impulsará una nueva línea estratégica de acción en el campo de la ética para la inclusión.

Finalmente, con el objetivo de fomentar y difundir el conocimiento y la innovación, en el año 2027 se realizará la VII Jornada de Inclusión, como foro de debate y reflexión entre profesionales que trabajan en el ámbito de la inclusión, desde diferentes sistemas (empleo, servicios sociales, vivienda, salud y educación).

Programa horretan sartzen dira Enplegu eta Inklusio Politiken Ebaluazio Organoa zuzkidurak (azken izen aldatua). Organo hori ex novo sortu zen Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen bidez, eta berriz diseinatu zen, alderdi batzuetan, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legean. Organo horren eginkizunak (aurrerantzean, Besaldi) lege honetan deskribatzen dira.

2027an, Besaldik enpleguko eta gizarteratzeko politika publikoen ebaluazioan espezializatutako organo gisa duen eginkizuna sendotzen jarraituko du, honako ardatz estrategiko hauetan oinarritutako agendarekin:

Enplegu-politikaren ebaluazioa izango da jarduera-eremu nagusietako bat, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legeak Besaldiri esleitutako eginkizunen esparruan. Hori izango da urteko ardatz nagusia, eta ikuspegi integralarekin helduko zaio, gobernantza-organoekin eta inplikatutako eragileekin elkarrizketan.

Halaber, gizarteratze-politikaren lehen ebaluazioan lortutako emaitzei eta ikaskuntzei buruzko hausnarketa bultzatuko da, bai eta egindako gomendioen jarraipena ere, politika hori bi urtean behin ebaluatzeko hurrengo ariketa prestatzeko.

Parte-hartzearen esparruan, Besaldi topaketen hirugarren zikloa sustatuko da, enplegu- eta gizarteratze-esparruetako funtsezko eragileekin, adostasunak eraikitzeko eta erabaki publikoak hartzeko baliagarriak diren planteamendu partekatuak sortzeko. Horrela, Besaldik elkarrizketarako eta hausnarketa estrategikorako gune gisa duen zeregina indartuko da.

Era berean, Euskal Herriko Unibertsitatearekiko (EHU) Eguía Careaga Fundazioarekiko eta ezagutzaren ekosistemako beste erakunde batzuekiko lankidetza indartuko da, enpleguaren eta inklusioaren arloko politika publikoen ebaluazioa garatzen eta sendotzen lagunduko duten ekimenak bultzatzeko.

Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) lankidetzan, ebaluazioaren arloan gaitasun teknikoak eta metodologikoak hobetzera bideratutako ikerketa-, prestakuntza- eta ezagutza-transferentziako jarduerak sustatuko dira.

Bestalde, Eguía Careaga Fundazioarekiko lankidetza dokumentu-kudeaketa espezializatuan, ezagutzaren sistematizazioan eta hedapenean eta ebaluazio-arloko erreferentziazko baliabideen eskura jartzean oinarrituko da.

Organoaren gaitasunak indartzeko, 2027an aurrera egingo da Besaldiren funtzionamendu-ereduaren definizioan, ikuspegi funtzionaletik eta informazioaren kudeaketaren ikuspegitik, eta Euskadiko politika publikoen diseinuan eta ebaluazioan egiten duen ekarpena indartzeko.

Prozesu horretan, Besaldik Eusko Jaurlaritzak bultzatutako eraldaketa digitaleko ekimenetan parte hartuko du, datuen aprobetxamendua, prozesuen automatizazioa eta adimen artifizialeko tresnen erabilera sustatuz, analisirako, ebaluaziorako eta ebidentziak sortzeko gaitasunak hobetzeko.

En este programa se incluyen las dotaciones al Órgano de evaluación de las políticas de empleo e inclusión (denominación final modificada). Este Órgano es creado ex novo por la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión y rediseñado, en algunos aspectos, en la Ley 15/2023, de 21 de diciembre, de Empleo. Las funciones de dicho Órgano (en adelante denominado Besaldi) están descritas en esta Ley.

Durante 2027, Besaldi continuará consolidando su papel como órgano especializado en la evaluación de las políticas públicas de empleo e inclusión, con una agenda centrada en los siguientes ejes estratégicos:

Uno de los focos principales será la evaluación de la política vasca de empleo, en el marco de las funciones atribuidas a Besaldi por la Ley 15/2023, de 21 de diciembre, de Empleo. Este será el eje prioritario del año, y se abordará con una mirada integral, en diálogo con los órganos de gobernanza y los agentes implicados.

Asimismo, se impulsará la reflexión sobre los resultados y aprendizajes obtenidos en la primera evaluación de la política de inclusión y el seguimiento de las recomendaciones formuladas, con el fin de preparar el siguiente ejercicio bienal de evaluación de dicha política.

En el ámbito de la participación, se impulsará el tercer Ciclo de Encuentros Besaldi con agentes clave de los ámbitos de empleo e inclusión, con el fin de construir consensos y generar planteamientos compartidos útiles para la toma de decisiones públicas, reforzando así el papel de Besaldi como espacio de diálogo y reflexión estratégica.

Asimismo, se reforzará la colaboración con la Universidad del País Vasco (EHU), la Fundación Eguía Careaga y con otras entidades del ecosistema de conocimiento, con el objetivo de impulsar iniciativas que contribuyan al desarrollo y consolidación de la evaluación de las políticas públicas de empleo e inclusión.

En colaboración con la Universidad del País Vasco (EHU), se promoverán actuaciones de investigación, formación y transferencia de conocimiento orientadas a mejorar las capacidades técnicas y metodológicas en materia de evaluación.

Por su parte, la colaboración con la Fundación Eguía Careaga se centrará en la gestión documental especializada, la sistematización y difusión de conocimiento, y la puesta a disposición de recursos de referencia en materia de evaluación.

Con el fin de fortalecer las capacidades del órgano, durante 2027 se avanzará en la definición del modelo de funcionamiento de Besaldi desde una perspectiva funcional y de gestión de la información, reforzando su contribución al diseño y evaluación de las políticas públicas en Euskadi.

En este proceso, Besaldi participará en las iniciativas de transformación digital impulsadas por el Gobierno Vasco, promoviendo el aprovechamiento de los datos, la automatización de procesos y el uso de herramientas de inteligencia artificial para mejorar las capacidades de análisis, evaluación y generación de evidencias.

Bere eginkizunak garatzean, Besaldik zeharka txertatuko du genero-ikuspegia bere ebaluazio-jardueretan, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen azterketa sustatuz eta horiek politika publikoen diseinurako, jarraipenerako eta ebaluaziorako ebidentziak sortzean kontuan hartzea sustatuz.

En el desarrollo de sus funciones, Besaldi incorporará de forma transversal la perspectiva de género en sus actividades de evaluación, promoviendo el análisis de las desigualdades entre mujeres y hombres y su consideración en la generación de evidencias para el diseño, seguimiento y evaluación de las políticas públicas.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. INKLUSIORAKO POLITIKA PUBLIKOA PLANIFIKATZEA 14/2022 LEGEAREN ARABERA		**1. PLANIFICAR LA POLÍTICA PÚBLICA DE INCLUSIÓN, DE ACUERDO CON LA LEY 14/2022**
1. Gizarteratzeko politika publikoaren planak eta estrategiak.		1. Planes y estrategias de la política pública de inclusión.
Aholkularitza eta parte-hartze organoen deialdiak eta aktak kudeatzea (Inklusiorako Euskal Kontseilua eta Inklusiorako Erakundearteko Batzordea).	**8**	Gestión de las convocatorias y de las actas de los órganos de asesoramiento y participación (Consejo Vasco para la Inclusión y Comisión Interinstitucional para la Inclusión).
Inklusiorako Euskal Planaren jarraipen-txostenak.	**1**	Informes de seguimiento del Plan Vasco de Inclusión.
Inklusiorako VI. Euskal Plana 2027-2031 onartzea.	**1**	Aprobación del VI Plan Operativo de Inclusión 2027-2031.
2. INKLUSIORAKO EUSKAL SISTEMAREN EGITURAKETAN AURRERA EGITEA		**2. AVANZAR EN LA VERTEBRACIÓN DEL SISTEMA VASCO DE INCLUSIÓN**
1. Euskal inklusio sistema egituratzea:		1. Vertebrar el sistema vasco de inclusión:
Inklusiorako V Euskal Planaren esparruan, inpaktu, egokitasun eta eskalagarritasun handiko proiektu esperimentalak garatzeko eta eskalatzeko dirulaguntza izendunak.	**7**	Subvenciones nominativas para el desarrollo y escalado de los proyectos experimentales de alto impacto, pertinencia y escalabilidad, en el marco del V Plan Vasco de Inclusión.
Dirulaguntzak, inklusio-ibilbide mistoen ereduaren esperimentazio-proiektuetarako.	**17**	Subvenciones para proyectos de experimentación del modelo de itinerarios mixtos de inclusión.
Idazkaritza teknikoaren kontratua, Euskadiko gizarteratze-sistemen arteko koordinaziorako tokiko mahaien berezko gobernantza-eredua dinamizatu eta ezartzeko.	**1**	Contrato de secretaría técnica para la dinamización e implementación del modelo de gobernanza propio de las mesas locales de coordinación entre sistemas de inclusión en Euskadi.
Euskadin ezarritako gizarteratzeko tokiko mahaiak.	**15**	Mesas locales de inclusión implementadas en Euskadi.
3. INKLUSIO-PROIEKTU ESPERIMENTAL ETA BERRITZAILEAK GARATZEA		**3. DESARROLLAR PROYECTOS DE INCLUSIÓN EXPERIMENTALES E INNOVADORES**
1. Inklusio proiektuak.		1. Proyectos de inclusión.
Dirulaguntza izenduna Gizatea-Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarteari: laneratze-enpresa berriak ezartzeko eta sendotzeko modelizazioa.	**1**	Subvención nominativa a la Asociación de Empresas de Inserción Gizatea, modelización para la implantación y consolidación de empresas de inserción.
Ikusmen-desgaitasunaren arloko sentsibilizazio-, prestakuntza- eta inklusio-jarduerak.	**1**	Actividades de sensibilización, formación e inclusión en el ámbito de la discapacidad visual.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Dirulaguntza izenduna TENDEL Elkarteari, gizarte-birsorkuntzako Diersi-Otxar proiekturako.	1	Subvención nominativa a TENDEL para el proyecto Diversi-Otxar de regeneración social.
Dirulaguntza izenduna gizarte-inklusiorako Sendotu Aldiberean elkartearentzat, Sendotu Aldiberean proiektua garatzeko.	1	Subvención nominativa a la Asociación Sendotu Aldiberean para la inclusión social para el desarrollo del proyecto Sendotu Aldiberean.
Dirulaguntza izenduna Acción contra el Hambre elkartearentzat, haur-pobreziaren kontrako «stop malnutrición» proiektua garatzeko.	1	Subvención nominativa a Acción Contra el Hambre para el desarrollo del proyecto contra la pobreza infantil «stop malnutrición».
Zainsare guneak sendotu eta ezartzeko dirulaguntza izendunak, hainbat udalerritan enplegurako eta zaintzarako erreferentzia direnak, Tokiko Enplegu eta Garapen Planen esparruan.	5	Subvenciones nominativas para la consolidación e implementación de los espacios Zainsare, de referencia para el empleo y los cuidados en diversos municipios, en el marco de los Planes de Empleo y Desarrollo Locales.
Migrazio seguruko kanalen bidez lan-mugikortasuna sustatzeko proiektu pilotuak.	2	Proyectos piloto para promover la movilidad laboral a través de canales de migración segura.
Diru-laguntza izenduna Deustuko Unibertsitateari, inklusiorako etika sustatzeko proiekturako.	1	Subvención nominativa a la Universidad de Deusto para el proyecto de promoción de la ética para la inclusión.
Dirulaguntza izenduna Ijitoen Idazkaritza Fundazioari, ijitoen kolektiboa gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide integratuak Acceder proiekturako.	1	Subvención Nominativa a la Fundación Secretariado Gitano para el proyecto Acceder, de itinerarios integrados para la inclusión sociolaboral del colectivo gitano.
4. INKLUSIOAREN ARLOKO EZAGUTZA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEA ETA ZABALTZEA		**4. FOMENTAR Y DIFUNDIR EL CONOCIMIENTO Y LA INNOVACIÓN EN EL ÁMBITO DE LA INCLUSIÓN**
1. Gizarteratze-eremua sustatzea eta bultzatzea.		1. Promover e impulsar ámbito de inclusión.
Eragile ezberdinen arteko topaketarako eta elkarrizketarako VII inklusio-jardunaldia, inklusio-politiken artikulazio hobea lortzeko.	1	VII Jornada de Inclusión para el encuentro y el diálogo entre los diferentes agentes para alcanzar una mejor articulación de las políticas para la inclusión.
Gizarte-inklusio-,-garapen eta -berrikuntzarako politikekin lotutako foro eta organoetan parte hartzea.	3	Participación en foros y órganos para la innovación relacionados con las políticas de inclusión y desarrollo e innovación social.
Inklusioari eta hari lotutako alderdiei buruzko elkarrizketa-eta hausnarketa-jardunaldiak antolatzea.	2	Organización de Jornadas de debate y reflexión sobre la inclusión y aspectos relacionados con la misma.
5. LANBIDE - EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN «GIZARTERATZEA» 3121 PROGRAMA FINANTZATZEA		**5. FINANCIAR PROGRAMA 3121 «INCLUSIÓN SOCIAL» LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO**
1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak sarrerak bermatzeko politika gauzatzea.		1. Ejecución por parte de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo de la política de garantía de ingresos.
Azalpen-memoria eta helburu zehatzen garapena Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoen atalean sartuta daude.	1	Su memoria explicativa, así como el desarrollo de los objetivos concretos queda incluido dentro del apartado de Entes Públicos de Derecho Privado.
6. ENPLEGU ETA INKLUSIO POLITIKEN EBALUAZIO ORGANOA		**6. ÓRGANO DE EVALUACIÓN DE LAS POLITICAS DE EMPLEO E INCLUSIÓN**
1. Enplegu eta gizarteratze politikak ebaluatzea.		1. Evaluar las políticas de empleo e inclusión.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
Enpleguaren euskal politika ebaluatzeko txostena egitea.	**1**	Elaboración del Informe de evaluación de la Política Vasca de Empleo.
Inklusio-politikaren lehen ebaluaziotik ikasitako ikasgaien txostena egitea	**1**	Elaboración de un informe de lecciones aprendidas de la primera evaluación de la política de inclusión.
Inklusio-politikaren lehen ebaluazioaren ondoriozko gomendioen ezarpenaren jarraipena.	**1**	Seguimiento de la implementación de las recomendaciones derivadas de la primera evaluación de la política de inclusión.
2. Ezagutza sistematizatzea enplegu- eta gizarteratze-politikak ebaluatzeko.		2. Sistematizar el conocimiento para la evaluación de las políticas de empleo e inclusión.
Taldearen prestakuntza parte-hartzailea. Lan-saioak.	**8**	Formación participativa del equipo. Sesiones Trabajo.
3. Besaldi enplegu- eta gizarteratze-politiken eragileen artean aitortutako organo gisa posizionatzeko prozesuan aurrera egitea.		3. Avanzar en el posicionamiento de Besaldi como órgano reconocido entre los agentes de las políticas de empleo e inclusión.
Legedian identifikatutako agenteekiko harremana. Agerraldiak, bisitak eta bilerak.	**20**	Relación con los agentes identificados en la legislación. Comparecencias, visitas y reuniones.
4. Euskadiko enplegu- eta gizarteratze-politiken ebaluazioan interesa duten pertsonen komunitatea indartzeai.		4. Fortalecer la comunidad de personas interesadas en la evaluación de las políticas de empleo e inclusión en Euskadi.
Besaldi Topaketen hirugarren zikloa egitea.	**3**	Realización del tercer ciclo de Encuentros Besaldi.
5. Enplegu- eta gizarteratze-politiken ebaluazioari buruzko ezagutzaren kudeaketa sustatzea.		5. Promover la gestión del conocimiento sobre evaluación de políticas de empleo e inclusión.
Dirulaguntza izenduna eta lankidetza-hitzarmena Euskal Herriko Unibertsitatearekin.	**1**	Subvención nominativa y convenio de colaboración con Euskal Herriko Unibertsitatea.
Kontratatutako ikertzaileak.	**2**	Personas investigadoras contratadas.
Ikerketarako laguntzen deialdia.	**1**	Convocatoria de ayudas a la investigación.
6. Enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazioaren arloko dokumentu-kudeaketa publiko-komunitarioa sustatzea Euskal Autonomia Erkidegotik.		6. Promover la gestión documental público-comunitaria desde el País Vasco en materia de evaluación de las políticas de empleo e inclusión.
Diru-laguntza izenduna Eguia Careaga Fundazioari. Web ataria.	**1**	Subvención nominativa a la Fundación Eguia Careaga. Portal Web.
7. Besaldiren etorkizuneko eredua.		7. Perfilar el modelo de futuro para Besaldi.
Diagnostiko dokumentua eta Besaldiren funtzionamendu-ereduaren proposamena, ikuspegi funtzional, antolatzaile eta informazioaren kudeaketaren ikuspegitik.	**1**	Documento de diagnóstico y propuesta de modelo de funcionamiento de Besaldi desde una perspectiva funcional, organizativa y de gestión de la información.
Datuen analitika erabiltzeko kasu bat diseinatzea, Besaldiren ebaluazio-jarduerari laguntzeko.	**1**	Diseño de un caso de uso de analítica de datos para apoyar la actividad evaluadora de Besaldi.

PROGRAMA

3125 ESKOLA-ASEGURUA

ARDURADUNA

EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA
LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA ZUZENDARITZA

PROGRAMA

3125 SEGURO ESCOLAR

RESPONSABLE

ECONOMIA, TRABAJO Y EMPLEO
DIRECCIÓN DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

MEMORIA

Lan eta Segurtasun Zuzendaritzak bere gain hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-aseguruaren kudeaketa osoa, gizarte-segurantzaren araubide ekonomikoaren izaera bateratuaren barruan.

Hori betetzeko, funtsezko eginkizun hauek hartzen ditu bere gain:

- Ikaslearen ekarpenaren bilketa eta likidazioa. Eskola-aseguruaren kuota finkoa haren aplikazio-eremuko ikastetxeen bidez biltzen da.

- Informazioa, hasiera, instrukzioa eta ebazpena.

- Prestazio ekonomikoak ordaintzea.

- Berrikuspena, azkentzea eta bidegabeko itzulketak.

- Baldintzak kontrolatzea eta zehatzeko ahala.

- Epaiketetan ordezkatzea eta defendatzea.

La Dirección de Trabajo y Seguridad asume la gestión completa del Seguro Escolar en la Comunidad Autónoma del País Vasco, enmarcado dentro del carácter unitario del régimen económico de la seguridad social.

Para su cumplimiento, asume las siguientes funciones clave:

- Recaudación y liquidación de la aportación del estudiante. La cuota fija del Seguro escolar se recauda a través de los centros docentes incluidos en su ámbito de aplicación.

- Información, inicio, instrucción y resolución.

- Pago de prestaciones económicas.

- Revisión, extinción y reintegros indebidos.

- Control de requisitos y potestad sancionadora.

- Representación y defensa en juicio.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. ESKOLA-ASEGURUAREN KUDEAKETA OSOA.		**1. GESTIÓN INTEGRAL DEL SEGURO ESCOLAR.**
1. Kuota biltzea.		1. Recaudación de la cuota.
Likidazio-kopurua.	**7.000**	Número de liquidaciones.
2. Eskola-istripuagatik, gaixotasunagatik eta familia-ezbeharragatik ematen diren laguntzen espedienteak izapidetzea.		2. Tramitación de expedientes de ayudas por accidente escolar, enfermedad e infortunio familiar.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
Likidazio-kopurua.	**40**	Número de liquidaciones.
3. Kudeaketaren ondoriozko beste jarduera batzuk.		3. Otras actividades derivadas de la gestión.
Eskola-asegurua izapidetu eta kudeatzeko irizpideak zehazteko bilerak.	**4**	Reuniones para determinar criterios de tramitación y gestión del seguro escolar.
Kudeaketarako aplikazio informatikoa ezartzeko bilerak.	**14**	Reuniones para la implementación de la aplicación informática de gestión.
Bere gain hartutako eskumenen berri herritarrei emateko hedapen-jarduerak.	**4**	Actuaciones de difusión a la ciudadanía de las competencias asumidas.

PROGRAMA

3211 ENPLEGUA

ARDURADUNA

EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA
ENPLEGU ZUZENDARITZA

PROGRAMA

3211 EMPLEO

RESPONSABLE

ECONOMIA, TRABAJO Y EMPLEO
DIRECCIÓN DE EMPLEO

MEMORIA

2026. urtea jarduera biziko aldia izan da, Enpleguaren 15/2023 Legearen hedapen eraginkorraren prozesutik eratorria, eta haren aginduak betetzeko betebeharretik eratorria. Horien artean, hainbat arau-garapen zeuden, hala nola Zerbitzu Zorroaren erregulazioa edo Enpleguaren Euskal Sarearen abiaraztea, kontsulta-organo berrien sorrera, hala nola Enpleguaren Euskal Foroa, Enpleguaren Euskal Sarearen tresna komunen sorrera edo Tokiko Enplegu eta Garapen Planen hedapena.

Lan horiek hasita, 2027rako aurrekontuak abian jarritako ekimenak finkatzea izan behar du ardatz, hala nola, lan-historia bakarra edo tokiko enplegu eta tokiko garapen planak, eta Enpleguaren Legearen gainerako edukiak garatzea, hala nola enpleguaren informazio- eta jarraipen-sistema, enplegu-planen jarraipena egiteko tresnak edo ebaluazio-tresnak, hori guztia inplikatutako eragile guztiekin koordinatuta.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren arabera, Enplegu eta Inklusio Sailburuordetzari dagokio enplegu-politika publikoaren plangintza estrategikoa eta koordinazioa, bai eta gizarte-eragileen parte-hartzea eta tokiko dimentsioari laguntzea ere. Era berean, enplegu-zerbitzuak emateko erakundeen arteko lankidetza garatzea eta Enpleguaren Euskal Sarea indartzea dagokio (Euskal Enplegu Sarearen ikuskaritza-zuzendaritza nagusia bere gain hartzen du), bai eta enplegu-zerbitzuen kalitatea kontrolatzea eta sare horren zerbitzu-zorroa onartzeko proposamena egitea ere.

El año 2026 ha sido un período de intensa actividad derivada del proceso de despliegue efectivo de la Ley 15/2023, de Empleo, y de la obligación del cumplimiento de sus mandatos. Entre ellos se encontraban varios desarrollos normativos como la regulación de la Cartera de Servicios o la puesta en marcha de la Red Vasca de Empleo, la creación de nuevos órganos consultivos como el Foro Vasco de Empleo, la creación de los instrumentos comunes para la Red Vasca de Empleo o el despliegue de los Planes de Empleo y Desarrollo Local.

Iniciados estos trabajos, el presupuesto para 2027 debe centrarse en la consolidación de las iniciativas puestas en marcha tales como la historia laboral única o los planes de empleo y desarrollo local y en el desarrollo del resto de contenidos de la Ley de Empleo, como el sistema de información y seguimiento de empleo, los instrumentos para el seguimiento de los planes de empleo, o las herramientas de evaluación, todo ello en coordinación con el conjunto de agentes implicados.

Según el Decreto 323/2024, de 5 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo, corresponde a la Viceconsejería de Empleo e Inclusión la planificación estratégica y coordinación de la política pública de empleo, así como la participación de los agentes sociales y el apoyo a la dimensión local de la misma. Igualmente, le compete desarrollar la colaboración interinstitucional en la prestación de servicios de empleo y reforzar la Red Vasca de Empleo, cuya dirección superior de inspección asume, así como el control de la calidad de los servicios de empleo, y la propuesta para la aprobación la cartera de servicios de la citada Red.

Zehazki, Enplegu Zuzendaritzari dagokio Euskadiko enplegu-politika publikoen, Enpleguaren Euskal Estrategiaren eta Euskadiko hiru urteko enplegu-planaren ildo estrategikoak egiteko prestakuntza-lanak garatzea, bai eta beharrezkoak diren ikerketak, analisiak eta txostenak egitea ere. Era berean, aipatutako koordinazio- eta plangintza-tresnen jarraipena eta ebaluazioa egitea dagokio.

Gainera, dekretu horrek Enplegu Zuzendaritzaren rol berriak ezartzen ditu; izan ere, Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzaren zuzendaritzapean, eskumenak esleitzen zaizkio enplegu-politika publikoen tokiko dimentsioa bultzatzeko ekimenak garatzeko, eta, era berean, Euskal Enplegua Sarean integratzeko eta uztearen prozedurak, sare horren ikuskapena eta enplegu-zerbitzuen kalitatearen kontrola izapidetuko ditu. Horretarako, Enplegu Zuzendaritzaren plantilla teknikoa indartzea aurreikusten da.

Enplegu Zuzendaritzari dagozkion eginkizunen arabera, 2027rako aurrekontua honako zortzi helburu hauetan oinarrituta egituratzen da:

Lehenengo helburua da enplegu-politika publikoa planifikatzea. 2030erako Euskal Enplegu Estrategiaren eguneratze-lanak amaituta, urteko ebaluazioa egingo da. Era berean, 2025-2027 Enplegu Plan Estrategikoa eta 2025 eta 2026 urteetarako Plan Operatiboak onartu ondoren, 21.257 euroko partida bat sartu da 2027rako aurrekontuan, 2027ari dagokion plan operatiboa egiteko eta 2026ri dagokionaren ebaluazioa egiteko.

2027rako bigarren helburua da Bigarren helburua, 2027rako, Enpleguaren 15/2023 Legearen arau-garapena eta haren hedapen antolakuntzakoa eta funtzionala finkatzea da. Enplegu Legearen edukiak garatzeko lanak hasita, beharrezkoa da jarraitzea, harik eta bertan jasotzen diren helburuak eta aginduak betetzea lortu arte. Enplegu Legea garatzeko fase honek, gutxienez urtebete gehiago iraungo duenak, kanpoko laguntza teknikoa behar du; horregatik, aurrekontuak laguntza teknikoaren kontratuari dagokion partida jasotzen du, 387.500 eurokoa 2027rako eta 96.875 eurokoa 2028rako.

Bestalde, Lanbide Heziketa antolatu eta integratzeko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren ondoriozko arau-aldaketen ondoren, zeinak prestakuntza-arloko eskumen-esparru berria ezartzen baitu, EAEn lanerako prestakuntza-eredu berri baterantz aurrera egin behar da, prestakuntza-arloan eskumena duten gainerako sailekin koordinatuta, pertsonen eta enpresen prestakuntza-beharrei arin eta malgutasunez erantzuteko. Eredu berri hori diseinatzeko prozesua 2026ean hasi ondoren, hurrengo urteak funtsezkoak izango dira hura behin betiko probatu eta inplementatzeko. Horretarako, 2027an, eredu berri hori produktibitate-sektore kopuru mugatu batean ezartzeko prozesuari ekingo diogu, haren bideragarritasuna aztertzeko eta, ondoren, beste esparru batzuetara igotzeko aukera aztertzeko. Prozesu horretarako 500.000 euroko partida izango dugu 2027an.

Específicamente, compete a la Dirección de Empleo desarrollar los trabajos preparatorios para la elaboración de las directrices estratégicas de las políticas públicas de empleo de Euskadi, de la Estrategia Vasca de Empleo y del plan trienal de empleo de Euskadi, así como los estudios, análisis e informes que resulten necesarios. Asimismo, le corresponde el seguimiento y evaluación de los citados instrumentos de coordinación y planificación.

Además, el citado Decreto establece nuevos roles de la Dirección de Empleo puesto que, bajo la dirección de la Viceconsejería de Empleo e Inclusión, se le atribuye competencias como desarrollar las iniciativas que sirvan de impulso a la dimensión local de las políticas públicas de empleo, y también tramitará los procedimientos de integración y cese en la Red Vasca de Empleo, inspección de la citada red y control de la calidad de los servicios de empleo, para lo que se prevé reforzar la plantilla técnica de la Dirección de Empleo.

De acuerdo con las funciones que corresponden a la Dirección de Empleo, el presupuesto para el año 2027 se articula en base a los siguientes ocho objetivos:

Un primer objetivo consiste en planificar la política pública de empleo. Finalizados los trabajos de actualización de la Estrategia Vasca de Empleo 2030, se realizará su evaluación anual. Así mismo, tras la aprobación del Plan Estratégico de Empleo 2025-2027 y los Planes Operativos correspondientes a los años 2025 y 2026 se incluye una partida de 21.257 euros en el presupuesto para 2027 al objeto de elaborar el plan operativo correspondiente a 2027 así como a la evaluación del correspondiente a 2026.

Un segundo objetivo para el año 2027 es el desarrollo normativo de la Ley 15/2023, de Empleo, y consolidar su despliegue organizativo y funcional. Iniciados los trabajos de desarrollo de los contenidos de la Ley de Empleo, es necesario continuar hasta lograr cumplir con los objetivos y mandatos que se contienen en ella. Esta fase de desarrollo de la Ley de empleo, que aún durará un mínimo de un año más, precisa contar con apoyo técnico externo, por lo que el presupuesto recoge la partida correspondiente al contrato de asistencia técnica por una cuantía de 387.500 euros para el año 2027 y 96.875 euros para el año 2028.

Por otra parte, tras los cambios normativos derivados de la Ley Orgánica 3/2022, de 31 de marzo, de ordenación e integración de la Formación Profesional que establece un nuevo marco competencial en materia de formación, es necesario avanzar hacia un nuevo modelo de formación para el trabajo en Euskadi que, de forma coordinada con el resto de los departamentos con competencias en materia de formación, permita atender de forma ágil y flexible a las necesidades formativas de personas y empresas. Tras el inicio, durante 2026, del proceso de diseño de este nuevo modelo, los próximos años serán claves para su testeo e implementación definitiva. Iniciada la fase piloto de este nuevo modelo en 2026, con la colaboración de la fundación Basque Data, corresponde evaluar sus resultados y continuar en el año 2027 con el desarrollo de este nuevo modelo, en colaboración con los agentes sociales, para lo que contaremos con un presupuesto de 500.000 euros en 2027.

Enpleguaren 15/2023 Legea indarrean sartzearen beste ondorio bat da 10.000 biztanletik gorako toki-erakunde guztiek enplegu-planak eta tokiko garapen-planak egin behar dituztela. Plan horien pilotaje-prozesua 2025ean hasi zen, eta 2026an zehar planak egitera behartuta dauden erakunde guztietara zabaldu zen. 2027a prozesu hori finkatzeko urtea izango da, eta 2027ko abenduaren 30a baino lehen amaitu beharko da. Era berean, 2027an zehar, prozesu hau hasiko da 10.000 biztanletik beherako toki-erakundeentzat, baldin eta enplegu-planak eta tokiko garapen-planak garatzea erabakitzen badute. Enplegu Zuzendaritzak, Enplegu Legean ezarritakoaren arabera, partida bat gaitu behar du plan horien diseinua, jarraipena eta ebaluazioa egiteko, eta, horretarako, 12.600.200 euroko partida espezifiko bat proposatzen dugu.

2026an dagoeneko martxan dago Enplegu Legearen edukiak abian jartzeko beharrezkoa den arau-garapenaren zatirik handiena, hala nola Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren funtzionamendu-erregelamendua, Enpleguaren Euskal Foroaren Egituraketa Dekretua onartzea edo Zerbitzu Zorroaren eta tresna komunen Dekretua izapidetzea. 2027a arau horiek onartzeko eta eraginkortasunez ezartzeko urtea izango da.

Gainera, Enplegu Zuzendaritzari dagokio Enpleguaren Euskal Sarearen funtzionamendua arautzen duten arauen garapena. Alde batetik, osatzen duten erakundeen edukiei eta integrazioari eta kargu-uzteari dagokienez, eta, bestetik, finantza daitezkeen kostuei, irizpideei, mugei eta finantzaketa-mekanismoei dagokienez. 2026an izapidetzen hasi ondoren, 2027an onartuko da. Arau berri horiek onartzeko, beste arau-garapen batzuk beharko dira, hurrengo ekitaldian garatu beharrekoak, eraginkortasunez ezartzeko.

Hirugarren helburu baten esparruan, Enpleguaren 15/2023 Legearen garapenean eragileen eta erakundeen parte-hartzea sustatzeari dagokionez, esparru arautzaile horrek gobernantza-sistema bat ezartzen du, hainbat eragilek eta erakundek enplegu-politika publikoen diseinuan duten parte-hartze aktiboan oinarrituta, eskumen-maila desberdinekin. Enplegu Zuzendaritzak laguntza teknikoa ematen dion Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseilua eta Gizarte Elkarrizketarako Mahaia, zeinean Zuzendaritza honek parte hartuko baitu Enplegu Lantaldearen bidez, Legeak berak ezarritako gobernantza-organoak dira.

Baina badaude beste organo batzuk ere, parte-hartzea ziurtatu behar zaienak. Horren adibide da Enpleguaren Euskal Foroa, zeinaren funtzionamendua arautzen duen Dekretua onartu ondoren, 2026an hasi baitu bere jarduera eta 2027an sendotzen jarraituko baitu. Koordinatu beharreko erakundeen bolumena eta Enplegu Legeak esleitzen dizkion eskumenak kontuan hartuta, organo horretarako Idazkaritza Tekniko bat sortzea ezartzen da, 50.000 euroko partida batekin 2027an.

Otra consecuencia de la entrada en vigor de la Ley 15/2023, de Empleo, es la obligatoriedad de elaboración de planes de empleo y de desarrollo local para todas las entidades locales de más de 10.000 habitantes. Iniciado el proceso de pilotaje de estos planes en 2025, y extendido durante 2026 a todas las entidades obligadas a su elaboración, el año 2027 será el de consolidación de este proceso que debe finalizar antes del 30 de diciembre de 2027. Igualmente, durante 2027 se iniciará este proceso para aquellas entidades locales de menos de 10.000 habitantes que opten por el desarrollo de sus planes de empleo y desarrollo local. La Dirección de Empleo, de acuerdo con lo establecido en la Ley de Empleo debe habilitar una partida presupuestaria destinada al diseño, seguimiento y evaluación de esos planes, para ello planteamos una partida específica de 12.600.200 euros.

Ya en marcha en 2026 la mayor parte del desarrollo normativo necesario para la puesta en marcha de los contenidos de la Ley de Empleo, como el reglamento de funcionamiento del Consejo Vasco de Políticas Públicas de Empleo, la aprobación del Decreto de Estructuración del Foro Vasco de Empleo o la tramitación del Decreto de Cartera de Servicios e instrumentos comunes, el año 2027 será el de la aprobación de estas normas y su implementación efectiva.

Además, corresponde a la Dirección de Empleo el desarrollo de las normas reguladoras del funcionamiento de la Red Vasca de Empleo. Por un lado, en lo referente a los contenidos y la integración y cese de las entidades que la forman y, por otro lado, en lo referente a los costes financiables, criterios, límites y mecanismos de financiación. Iniciada su fase de tramitación en 2026 será aprobada en 2027. La aprobación de estas nuevas normas requerirá para su implementación efectiva otros desarrollos normativos a desarrollar en el próximo ejercicio.

En el marco de un tercer objetivo, de fomento de la participación de agentes y entidades en el desarrollo de la Ley 15/2023, de Empleo, este marco normativo establece un sistema de gobernanza basado en la participación activa de diferentes agentes y entidades con diferentes grados de competencias en el diseño de las políticas públicas de empleo. El Consejo Vasco de Políticas públicas, al que la Dirección de Empleo presta asistencia técnica, y la Mesa de Diálogo Social, en la que esta Dirección participará a través del Grupo de trabajo de Empleo, son los órganos de gobernanza establecidos por la propia Ley.

Pero existen otros órganos cuya participación debe asegurarse también. Tal es el caso de Foro Vasco de Empleo, que tras la aprobación del Decreto que regula su funcionamiento, ha iniciado su actividad en 2026 y continuará con su consolidación en 2027. Atendiendo al volumen de entidades a coordinar, así como las competencias que le asigna la Ley de Empleo, se establece la creación de una Secretaría Técnica para este órgano, con una partida de 50.000 euros en 2027.

Enpleguaren Euskal Foroarekin zuzenean lotuta, 2027ko aurrekontuak bi dirulaguntza izendun jasotzen ditu Iseak eta Orkestra erakundeentzat, 100.000 eurokoa eta 50.000 eurokoa, hurrenez hurren, 2026ko azken hiruhilekoan Enpleguaren Euskal Foroaren barruan adostutako gaiei buruzko azterlanak egiteko.

Era berean, 2027an, Enpleguaren aldeko Gizarte Itunaren edukiei buruzko lanen eta emaitzen balantzea egingo da berriro, 2026. urteari dagokionez, eta, aurreko aldietan bezala, itun hori sinatu duten erakunde guztiek itun horren helburuekin duten konpromisoa islatuko dute.

Enplegu Zuzendaritzaren 2027rako laugarren helburua da proiektu esperimentalak garatzea mundu-mailako hiru trantsizioei lotuta: demografiko-soziosanitarioa, energetiko-klimatikoa eta teknologiko-digitala.

Trantsizio demografiko-soziosanitarioak Euskadin duen garrantzia kontuan hartuta, 2027an honako proiektu hauetan lan egingo dugu.

ATAL *SEC.*	PROG. *PROG.*		GUZTIRA *TOTAL*	KAPITULUAK *CAPITULOS* 2 Zeharkako zergak *Impuestos indirectos*	3 Tasak prez.pub. *Tasas prec.públ.*	4 Transf. arruntak *Transfe. corrientes*	5 Ondare sarrerak *Ingresos patrimon.*	6 Inb.err. besterentz *Enaj.Inver reales*	7 Kapital transf. *Transfe. capital*	8 Aktibo f. murrizketa *Dism. act. financie.*	9 Pasibo f. gehikuntza *Aumento pasi.fin*
03		**Ekon., Lana eta Enpl** ***Econ, Trab y Empl***	**3.234,5**	**0,0**	**3.234,0**	**0,0**	**0,5**	**0,0**	**0,0**	**0,0**	**0,0**
03	3110	*Ek_Lana_ En. E. L.* Est. Ap. Eco., T. E.	13,8	0,0	13,3	0,0	0,5	0,0	0,0	0,0	0,0
03	3112	*Lana* Trabajo	3.022,4	0,0	3.022,4	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
03	3125	*Eskola-asegurua* Seguro Escolar	181,7	0,0	181,7	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
03	3212	*Gizarte Ekonomia* Economía Social	16,7	0,0	16,7	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
		GUZTIRA ***TOTAL***	**3.234,5**	**0,0**	**3.234,0**	**0,0**	**0,5**	**0,0**	**0,0**	**0,0**	**0,0**

ORGANISMO AUTONOMOAK
ORGANISMOS AUTÓNOMOS

LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE SEGURIDAD Y SALUD LABORALES

Instituzioaren eta programaren memoria
Memoria de la Institución y del Programa

Gastuen egoera-orria
El Estado de Gastos

Sarreren egoera-orria
El Estado de Ingresos

Gastuen laburpenak
Resúmenes de Gastos

Sarreren laburpenak
Resúmenes de Ingresos

OSALAN

SARRERA

Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, 1993an sortutako erakunde autonomoa da, eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailera dago atxikita. Laneko segurtasunaren, higienearen, ingurumenaren eta osasunaren arloko politika publikoak kudeatzen ditu, lan-eremuan langileen segurtasunaren zein osasunaren babes-maila handitzeko eta, horretarako, laneko berezko arriskuen sorburuak desagerrarazteko eta, ezinezkoa denean, jatorrian murrizteko.

OSALANEN JARDUERAK

Agindutako eskuduntzak eta eginkizunak betetzeko asmoz, Osalanek honako jarduera hauek garatzen ditu:

Behar besteko lidergoa lantzea, arriskuen prebentzioaren kultura sustatzeko, ekoizpen-jardueraren kudeaketan txertatzeko eta, hori egitean, genero-ikuspegia kontuan hartzeko. Horretarako:

- Osasunaren inguruan sentsibilizatzeko eta sustatzeko zabalkunde-jarduera garatzea.
- Genero-ikuspegia prebentzio-jardueran eta laneko segurtasun zein osasunaren arloko politika publikoetan kontuan hartzeko zabalkunde-jarduera abian jartzea.

Administrazioei, agintariei, erakundeei, gizarte-eragileei, prebentzio-zerbitzuei, enpresaburuei, langileei eta herritarrei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea. Horretarako:

- Laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak ikertzea.
- Laneko Arriskuen Prebentziorako (aurrerantzean, LAP) kanpainak garatzea.
- Hainbat arrisku-tipologia tratatzeko proiektuak garatzea: industria-segurtasunekoak, higienekoak, ergonomikoak, psikosozialak, ez-traumatikoak, altuerako erorikoak, bide-segurtasunekoak, etab.
- Lantokiak irekitzean, LAPen kudeaketa kontrolatzea.
- Amiantoa duten materialak kentzeko lanak kontrolatzea.
- Laneko, osasuneko eta arlo judizialeko agintariek eskatuta, txosten teknikoak egitea.

INTRODUCCIÓN

Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales, es un organismo autónomo creado en 1993 y adscrito al Departamento de Economía, Trabajo y Empleo. Gestiona las políticas públicas en materia de seguridad, higiene, medio ambiente y salud laborales, dirigidas a elevar el nivel de protección de la seguridad y salud de las personas trabajadoras en el ámbito laboral, mediante la eliminación y, cuando no sea posible, la reducción en su origen de las causas de los riesgos inherentes al trabajo.

ACTIVIDADES DE OSALAN

En cumplimiento de las atribuciones y funciones encomendadas, Osalan desarrolla las siguientes actividades:

Liderazgo para promover la cultura de la prevención de riesgos, conseguir que se integre en la gestión de la actividad productiva y que esa integración se realice con perspectiva de género. Consiste en:

- Actividad divulgativa de sensibilización y de promoción de la salud.
- Actividad divulgativa sobre la integración de la perspectiva de género en la actividad preventiva y en las políticas públicas de seguridad y salud laborales.

Asistencia y asesoramiento técnico a administraciones, autoridades, instituciones, agentes sociales, servicios de prevención, empresariado, personas trabajadoras y ciudadanía. Consiste en:

- La investigación de accidentes laborales y de enfermedades profesionales.
- El desarrollo de campañas de Prevención de Riesgos Laborales (en adelante, PRL).
- El desarrollo de proyectos para el tratamiento de diferentes tipologías de riesgos: de seguridad industrial, de higiene, ergonómicos, psicosociales, no traumáticos, de caídas en altura, de seguridad vial, etc.
- El control de la gestión de PRL en las aperturas de centros de trabajo.
- El control en los trabajos de retirada de materiales que contienen amianto.
- La realización de informes técnicos a petición de las autoridades laboral, sanitaria y judicial.

Arau-proposamenak garatzea.

Industria-higieneari buruzko neurketak eta azterketak egitea.

LAPen arloko ez-betearazpenei buruzko txostenak egitea.

Ezintasuna baloratzeko taldeei laguntza teknikoa ematea.

Amiantoaren biktimak baloratzeko taldeetan parte hartzea.

Ingurumeneko muga-balioak berrikustea.

Osasunerako arriskuak gutxitzeko eta laneko segurtasuna hobetzeko estandar teknikoak eta kalitatekoak proposatzea eta, horretarako, UNEko normalizazio-lantalde teknikoetan parte hartzea.

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionaleko (CNSST) eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako Lurralde arteko Sareko (RISST) sareko batzorde eta lantaldeetan parte hartzea.

Osasuna zaintzea. Horretarako:

Laneko ezbehar-tasaren bilakaerari, gaixotasun profesionalei, laneko arriskuekiko esposizioari eta lanaren ondorioz sortutako osasun-kalteei buruzko azterlanak egitea eta zabaltzea.

Lanarekin lotutako osasun-kalteen zaintza epidemiologikoa egitea.

Informazio-sistemak kudeatzea eta garatzea, lanak osasunean sorrarazitako kalteen garrantzia eta banaketa nolakoak diren jakiteko.

- Amiantoaren eraginpean egon ahal izan diren langileen zaintza postokupazionalerako programa.

- Prebentzio Zerbitzuen Gutxieneko Datuen Multzoari buruzko informazio-sistema.

- Gaixotasun profesionalaren susmoa jakinarazteko sistema.

- Prebentzio Zerbitzuen osasun-arloko zerbitzuei eta jarduerei buruzko informazio-sistema.

LAPen arloa antolatzea eta bertan esku hartzea. Horretarako:

Prebentzio Zerbitzuetako eta auditoretza-erakundeetako osasun-zerbitzuaren jardunbiderako, kontrolerako eta ikuskaritzarako baimena ematea.

Laneko osasunaren arloko zehapen-espedienteak bideratzea.

Laneko segurtasun eta osasunaren arloko prestakuntza, zabalkundea eta sustapena areagotzea. Horretarako:

Prestakuntzarako eta zabalkunderako ekitaldiak antolatzea eta ematea: ikastaroak, tailerrak, jardunaldiak, etab.

El desarrollo de propuestas normativas.

La realización de mediciones y estudios de higiene industrial.

La realización de informes de incumplimientos en materia de PRL.

La asistencia técnica a los Equipos de Valoración de Incapacidad.

La participación en los Equipos de Valoración de Víctimas del Amianto.

La revisión de valores límite ambientales.

La propuesta de estándares técnicos y de calidad para minimizar riesgos para la salud y mejorar la seguridad en el trabajo, mediante la participación en los comités técnicos de normalización de UNE.

La participación en las comisiones y grupos de trabajo en red de la Comisión Nacional de Seguridad y Salud en el Trabajo (CNSST) y de la Red Interterritorial de Seguridad y Salud en el Trabajo (RISST).

Vigilancia de la salud. Consiste en:

La realización y difusión de estudios sobre la evolución de la siniestralidad laboral, las enfermedades profesionales, la exposición a los riesgos laborales y los daños a la salud derivados del trabajo.

La vigilancia epidemiológica de los daños a la salud relacionados con el trabajo.

La gestión y el desarrollo de sistemas de información para conocer la magnitud y distribución de los daños a la salud derivados del trabajo.

- Programa de vigilancia post-ocupacional de la población trabajadora posiblemente expuesta a amianto.

- Sistema de información del Conjunto Mínimo de Datos de los servicios de prevención.

- Sistema de comunicación de sospecha de enfermedad profesional.

- Sistema de información sobre servicios y actuaciones sanitarias de los servicios de prevención.

Ordenación e intervención en materia de PRL. Consiste en:

Autorización de funcionamiento, control e inspección del servicio sanitario de los servicios de prevención y de las entidades auditoras.

Instrucción de expedientes sancionadores en materia de salud laboral.

Formación, divulgación y promoción en materia de seguridad y salud laborales. Consiste en:

Organización e impartición de eventos formativos y divulgativos: cursos,talleres, jornadas, etc.

LAPen arloko jarduerak eta proiektuak sustatzea.

Hainbat giza talderi LAPen arloko prestakuntza espezializatua ematea, baita graduko (Erizaintza) eta graduondoko (BAME eta BAE) praktikak ere. EHUko Laneko Medikuntza eta Erizaintzako Katedrako mintegiak ematea.

Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) lankidetzan aritzea, LAPeko Masterrean eta Berdintasun Masterrean emandako irakaskuntzaren bitartez.

Laneko osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko programak abian jartzea.

Hezkuntza-maila guztietan LAPeko prestakuntza bultzatzea, Lanbide Heziketan eta unibertsitatean, batez ere.

Ikertzea eta berritzea. Horretarako:

Laneko segurtasun eta osasunaren arloko edukia lantzea; gidak, gomendioak eta gidalerroak, esaterako.

Osasuna zaintzeko protokoloak egitea, berrikustea eta zabaltzea.

Laneko segurtasun eta osasunari buruzko ikerketa-proiektuak diruz laguntzea.

2026. URTEKO JARDUERA NAGUSIAK

2026ko lehen seihilekoan, Osalanek urteko Kudeaketa Planaren zati garrantzitsu bat garatu du, eta Kontseilu Nagusian zein eskuordetutako batzordeetan parte hartzen duten gizarte-eragileekin adostu zen. Honako hauek izan dira jarduera nagusiak:

Behar besteko lidergoa izatea, arriskuen prebentzioaren kultura sustatzeko, ekoizpen-jardueraren kudeaketan txertatzeko eta, hori egitean, genero-ikuspegia kontuan hartzeko:

Emakunderekin batera lan egiteko plana onartu eta betearazten hasi da, LAPen genero-ikuspegia hobeto txertatzeko jarduerak garatu daitezen.

Honako hitzaldi hau eman da Generoari eta Laneko Arriskuei buruzko Biltzarrean: «Genero-ikuspegia prebentzioaren kudeaketan txertatzeko prozesuaren garrantzia: genero-desberdintasunak, prebentzio eraginkorrerako funtsezko giltzarria».

EuskadiPreben Elikaduraren eta Zurgintzaren Balio Katerako Estrategia Sektoriala ebaluatu da. Estrategia berria prestatzen ari da.

Laguntza eta aholkularitza teknikorako jarduera:

Istripuak kontrolatzeko eta ikertzeko kanpaina guztiak diseinatu dira (basogintzako eta arrantzako lehen sektoreak, industria eta eraikuntza), eta erdiak baino gehiago betearazpen-fasean daude.

Ezohiko lanetan ari diren langileak jasotzeko orduan garabitik esekitako saskiei buruzko prebentzio-kanpainaren azken txostena argitaratu da.

Fomento de actividades y proyectos en materia de PRL.

Impartir formación especializada en materia de PRL a diferentes colectivos, así como prácticas de grado (Enfermería) y de posgrado (MIR y EIR). Impartir los seminarios de la cátedra de Medicina y Enfermería del Trabajo de la EHU.

Colaboración con la Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) mediante la docencia en el Máster en PRL y en el Máster de Igualdad.

Programas de promoción de la salud en el trabajo y de prevención de adicciones.

Impulsar la formación en PRL en todos los niveles educativos, especialmente en Formación Profesional y en la Universidad.

Investigación e innovación. Consiste en:

Elaboración de contenido en forma de guías, recomendaciones y directrices en materias de seguridad y salud laboral.

Elaboración, revisión y divulgación de protocolos de vigilancia de la salud.

Subvención a proyectos de investigación en Seguridad y Salud laborales.

PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2026

En el primer semestre de 2026 Osalan ha desarrollado una parte importante del Plan de Gestión anual, que fue consensuado con los agentes sociales que participan en el Consejo General y en las comisiones delegadas. Las principales realizaciones son las siguientes:

Liderazgo para promover la cultura de la prevención de riesgos, conseguir que se integre en la gestión de la actividad productiva y que esa integración se realice con perspectiva de género:

Se ha aprobado y comenzado la ejecución del plan de trabajo conjunto con Emakunde para el desarrollo de actuaciones que mejoren la integración de la perspectiva de género en la PRL.

Impartición de la ponencia: «La importancia de integrar la perspectiva de género en la gestión preventiva: las diferencias de género como clave fundamental para una prevención eficaz» en el Congreso Género y PRL.

Se ha realizado la evaluación de la Estrategia sectorial EuskadiPreben, de la cadena de valor alimentaria y de la madera. Se está elaborando la nueva Estrategia.

Actividad de asistencia y asesoramiento técnico:

Se han diseñado todas las campañas de control e investigación de accidentes (sectores Primario-forestal y pesquero, Industria y Construcción) y más de la mitad están en fase de ejecución.

Se ha publicado el informe final de la campaña preventiva sobre cestas suspendidas de grúa para elevación de personas en trabajos excepcionales.

Nahierako laguntza teknikoa ematen da, eta prozesu bakoitzerako zehaztutako tartearen barruan jarraitzen dute erantzuteko epealdiek. Prebentzio Zerbitzuek eta partikularrek aholkularitzarako egindako mila kontsultari eta eskaerari erantzun zaie. 77 txosten egin dira agintarientzat; eta adituen 11 irizpen, epaiketetan.

Ireki berri diren lantokiak eta amiantoa duten materialak kentzeko lan-planak kontrolatzen dira.

Lankidetza-hitzarmena sinatu eta argitaratu da Ezbeharren Fiskaltzarekin, langileen biziaren, osasunaren eta osotasun fisikoaren aurkako delitua ikertzean prestakuntza eta aholkularitza teknikoa emateko asmoz.

Osasuna zaintzeko jarduera:

Amiantoaren biktimak baloratzeko taldeek 190 irizpen eman dituzte.

INSTTk bibrazio mekanikoekiko lan-esposizioari buruz antolatutako jardunaldi teknikoan parte hartzea eta, bertan, gida teknikoaren bertsio berria eta Osasuna Zaintzeko Protokolo berria aurkeztea.

Laneko Minbiziaren Zaintza Epidemiologikorako 2021-2025eko Programaren (mesoteliomak) urteko txostena egin da.

Prestakuntzarako eta zabalkunderako jarduerak:

Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko Online Ikastaroaren 3 edizio eman dira genero-ikuspegia kontuan hartuta, eta, guztira, 122 lagunek jaso dute prestakuntza.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Online Ikastaroaren 2 edizio eman dira langile autonomoentzat. Hirugarren edizioa dago abian.

Osasun-langileentzako saioa egin da. Bertan, osasuna sustatzeko programen esperientzia praktikoak aurkeztu dira lehentasunezko eremuetan; osasun mentalean eta osasun kardiobaskularrean, esate baterako, baita enpresetako ohiturei eta adikzioei buruzko inkestetako emaitzak ere. 141 profesionalek parte hartu zuten.

Bi eguneratze-tailer eman dira prebentzio-zerbitzuetako teknikarientzat. Honako gaiok jorratu dira:

- AAren ezarpena LAPen kudeaketan. Prebentzioko 461 profesionalek parte hartu dute.

- Laneko bide-segurtasuna. 199 profesional bertaratu dira.

IVAPek Amiantoari eta Udal Inbentarioei buruz antolatutako Ikastaroaren bi edizio eman dira (gaztelaniaz eta euskaraz) udal-teknikarientzat.

EHUren Udako XVI. Ikastaroa eman da: Lan duina eta segurua: LAPen ikuspegitik dauden erronkak eta estrategiak (programa elebiduna).

Se presta asistencia técnica a demanda, manteniéndose los tiempos de respuesta dentro del rango definido para cada proceso. Se han atendido un millar de consultas y solicitudes de asesoramiento de servicios de prevención y particulares. Se han realizado 77 informes para las autoridades y 11 dictámenes periciales en juicios.

Se controlan los centros de trabajo de nueva apertura y los planes de trabajo para la retirada de materiales con amianto.

Se ha firmado y publicado un convenio de colaboración con la Fiscalía de Siniestralidad para la formación y el asesoramiento técnico en la investigación de los delitos contra la vida, la salud y la integridad física de los trabajadores.

Actividad de vigilancia de la salud:

190 dictámenes de los Equipos de Valoración de Víctimas de Amianto.

Participación en la jornada técnica del INSTT sobre exposición laboral a vibraciones mecánicas, con presentación de la nueva versión de la Guía técnica y del nuevo Protocolo de vigilancia sanitaria.

Se ha elaborado el Informe anual del programa de vigilancia epidemiológica de cáncer laboral 2021-2025 Mesoteliomas.

Actividades de formación y divulgación:

Se han impartido 3 ediciones del curso online sobre Seguridad y Salud laborales con perspectiva de género, con un total de 122 personas formadas.

Se han impartido 2 ediciones del curso online de PRL para personal trabajador autónomo. Está en curso la tercera edición.

Se ha celebrado una sesión dirigida a personal sanitario, en la que se han presentado experiencias prácticas de programas de promoción de la salud en ámbitos prioritarios como la salud mental y la salud cardiovascular, así como los resultados de las encuestas sobre hábitos y adicciones en las empresas. Asistieron 141 profesionales.

Se han impartido dos talleres de actualización dirigidos al personal técnico de los servicios de prevención. Temáticas abordadas:

- Aplicación de la IA a la gestión de PRL, con asistencia de 461 profesionales de la prevención.

- Seguridad vial laboral, con 199 profesionales asistentes.

Se han impartido dos ediciones (en castellano y euskera) del curso del IVAP sobre Amianto e inventarios municipales dirigido a personal técnico municipal.

Se han impartido el XVI curso de verano de la EHU Trabajo digno y seguro: retos y estrategias desde la perspectiva de la PRL (programa bilingüe).

Euren Prebentzio Zerbitzua edo Prebentzio Zerbitzu Mankomunatua duten eta Euskadin kokatuta dauden enpresetan genero-ikuspegia integratzeko azterlana argitaratu da.

EAEko Arrisku Psikosozialen Kudeaketaren Mapa (2023-2025) argitaratu da.

Etxeko arriskuen prebentzioari buruzko fitxak argitaratu dira.

2025eko laneko istripuei, gaixotasun profesionalei eta gaixotasun profesionalen susmoei buruzko urteko txostenak egin dira, eta argitaratzear daude.

LAPi buruzko hiru topagune egin dira:

- Langile autonomoekin egindako topaketa.

- Etxeko langileekin egindako topaketa.

- Zuraren sektoreko enpresekin sudur-barrunbetako eta sinu paranasaletako adenokartzinomari buruz egindako topaketa.

Ikerketarako eta berrikuntzarako jarduera:

Bibrazioen eraginpean daudenen osasuna zaintzeko protokoloa argitaratu eta zabaldu da. Horrez gain, agente kimikoen eraginpean egondakoen osasuna zaintzeko protokolorako berunaren fitxa sortu da.

Trenbide Gainegituren Eraikuntzan (II. Berritzeko, Mantentzeko eta Kontserbatzeko Obrak) laneko arriskuak prebenitzeko gida teknikoa egin da.

Laneko segurtasun eta osasunaren arloan ikertzeko proiektuetarako laguntzen deialdia egin da.

Se ha publicado el estudio Integración de la perspectiva de género en empresas ubicadas en Euskadi que cuentan con Servicio de Prevención Propio o Servicio de Prevención Mancomunado.

Se ha publicado el Mapa de la Gestión de Riesgos Psicosociales en la CAE (2023-2025).

Se han publicado las fichas Prevención de riesgos en el hogar.

Se han elaborado los informes anuales de Accidentes de Trabajo, Enfermedades Profesionales y Sospechas de Enfermedad Profesional de 2025, pendientes de publicación.

Se han celebrado tres foros de encuentro sobre PRL:

- Encuentro con el personal autónomo.

- Encuentro con personal al servicio del hogar.

- Encuentro con empresas del sector de la madera, sobre el adenocarcinoma de fosas nasales y senos paranasales.

Actividad de investigación e innovación:

Se ha publicado y divulgado el protocolo de vigilancia de la salud de las personas expuestas a vibraciones. Y se ha elaborado la ficha del plomo que corresponde al protocolo de vigilancia de la salud de las personas expuestas a agentes químicos.

Se ha elaborado la Guía técnica para la prevención de riesgos laborales en la Construcción de Superestructuras Ferroviarias. II. Obras de Renovación, Mantenimiento y Conservación.

Se ha realizado la convocatoria de ayudas a proyectos de investigación en el ámbito de la seguridad y salud en el trabajo.

2027. URTERAKO HELBURU OROKORRAK

2027an, plangintza estrategikoko beste epealdi bat hasiko da. Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2027-2032ko Euskal Estrategian, baliteke egungo hiru ardatzak (Kultura, Kalitatea eta Gobernantza) osatzea eta laugarren ardatza sartzea, jakintzaren ikerketan, berrikuntzan eta kudeaketan ikuspegi bereizia eskaintzeko asmoz. Ardatz hori funtsezkoa da erronka teknologiko berrien aurrean, erabakiak hartzeko orduan adimen artifiziala erabiltzean sortutako erronken aurrean, batez ere.

Beraz, plangintza estrategikoari buruzko erabakiak alde batera utzi gabe, 2027rako helburu orokorrak lau ardatzetan egituratuko dira aurreikuspenen arabera, eta ardatz horiek dokumentu honetan aurreratutako izenarekin eta edukiarekin bat etorri daitezke ala ez. Nolanahi ere, laneko segurtasun eta osasunerako politika publikoen plangintza estrategikoan, operatiboan, ebaluazioan eta zehaztapenean, genero-ikuspegia hartuko da kontuan, emakume langileen beharrei erreparatuko zaie eta ekintzen zein neurrien eragina ebaluatuko da.

1. ARDATZA: KULTURA

Gizarte-kontzientziazioan eta prebentzioaren kulturaren sustapenean egiten da aurrera zabalkunderako ekintzen bidez.

OBJETIVOS GENERALES PARA 2027

En 2027, comienza un nuevo periodo de planificación estratégica. En la Estrategia Vasca de Seguridad y Salud en el Trabajo 2027-2032 posiblemente se amplíen los tres ejes actuales (Cultura, Calidad y Gobernanza) introduciendo un cuarto eje con un enfoque diferenciado en la investigación, la innovación y la gestión del conocimiento, esencial ante los nuevos retos tecnológicos, especialmente los derivados de la implementación de la Inteligencia Artificial en la toma de decisiones.

Por tanto, sin perjuicio de las decisiones de planificación estratégica, se prevé que los objetivos generales para 2027 se estructuren en cuatro ejes, que pueden coincidir o no con la denominación y contenido que se anticipa en este documento. En todo caso, la planificación estratégica, la operativa, la evaluación y la formulación de las políticas públicas de seguridad y salud en el trabajo se hará con perspectiva de género, teniendo en cuenta las necesidades de las mujeres trabajadoras y evaluando el impacto de la acciones y medidas.

EJE 1: CULTURA

Se avanza en la concienciación social y en la promoción de la cultura de la prevención a través de acciones divulgativas.

Jokaera seguruak zein lan-ingurune osasungarriak sustatzen dira, eta, bertan, arreta berezia ematen zaie langile autonomoei.

Se fomentan los comportamientos seguros y los entornos laborales saludables, con especial énfasis respecto al personal autónomo.

2. ARDATZA: IKERKETA ETA BERRIKUNTZA

EJE 2: INVESTIGACIÓN E INNOVACIÓN

Osasun-kalteak eragiten dituzten faktoreen ezagutzan egiten da aurrera. Horretarako, lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen jatorria zein den ikertzen da, eta arrisku-faktoreak nahiz eragileak zein diren zehazten da.

Se avanza en el conocimiento de los factores causantes de daños a la salud mediante la investigación de las causas de los accidentes de trabajo y de las enfermedades profesionales, identificando factores de riesgo y agentes causales.

Gaixotasun profesionalen aitortzan eta lan-prozesuen antolaketan nahiz kudeaketan integratutako prebentzioan egiten da aurrera.

Se avanza en el reconocimiento de las enfermedades profesionales y en la prevención de estas integrada en la organización y gestión de los procesos de trabajo.

Aholkularitza teknikorako zerbitzuak ematen zaizkie enpresei, langileei eta laneko, osasuneko zein arlo judizialeko agintariei.

Se prestan servicios de asesoramiento técnico a empresas, personas trabajadoras y a las autoridades laboral, sanitaria y judicial.

Ikerketa-jardunaren, gomendioen eta jarduera egokien berri ematen da.

Se realiza divulgación de la actividad investigadora y de las recomendaciones y buenas prácticas.

Generoak eta beste determinatzaile batzuek laneko arriskuetan duten eragina antzemateko gidak ikertu eta garatzen dira. Bertan, gainera, arreta berezia ematen zaie arrisku muskuloeskeletiko eta psikosozialei.

Se investiga y se desarrollan guías para detectar la influencia del género y otros determinantes en los riesgos laborales, con especial atención a los riesgos músculo esqueléticos y psicosociales.

Emakumeek eta gizonek laneko arriskuekiko esposizioan, esposizio horren ondorioetan eta lanarekin lotutako gaixotasunen eraginean dituzten desberdintasunak hartzen dira kontuan. Horretarako, sexuaren arabera bereizitako datuak lortzen dira, baldintzatzaileei erreparatzen zaie eta jarduketen eragina aztertzen da.

Se tienen en cuenta las diferencias en la exposición de mujeres y hombres a los riesgos laborales y las diferencias en las consecuencias de la exposición y en la incidencia de las enfermedades relacionadas con el trabajo. Para ello, se obtienen los datos desagregados por sexo, se tienen en cuenta los condicionantes y se analiza el impacto de las intervenciones.

Osasun epidemiologikoa eta postokupazionala zaintzen dira.

Se realiza vigilancia de la salud epidemiológica y post-ocupacional.

Arrisku psikosozialen arloko laguntza teknikorako, aholkularitzarako eta zabalkunderako zerbitzuak ematen dira.

Se prestan servicios de asistencia técnica, asesoramiento y divulgación en materia de riesgos psicosociales.

Laneko arriskuen arloko ikerketarako, garapenerako eta berrikuntzarako proiektuak bultzatu eta garatzen dira, genero-ikuspegia txertatzen duten proiektuak sustatzeko eta lehenesteko asmoz.

Se impulsan y desarrollan proyectos de investigación y de desarrollo e innovación en materia de riesgos laborales, fomentando y priorizando los proyectos que incorporan la perspectiva de género.

3. ARDATZA: KALITATEKO PREBENTZIO-KUDEAKETA

EJE 3: GESTIÓN PREVENTIVA DE CALIDAD

Prebentzioa lan-prozesuen antolamenduan integratuko duen eta genero-ikuspegia txertatuko duen kudeaketa-ereduaren definizioan egiten da aurrera, hainbat eratako enpresak eta jarduerak kontuan hartuta.

Se avanza en la definición de un modelo de gestión que integre la prevención en la organización de los procesos de trabajo y que incorpore la perspectiva de género, para diversos tipos de empresa y actividades.

Prebentziorako jarduera gainbegiratzen da, lantokiak irekitzean eta kanpaina sektorialak edo arrisku zehatzetarako kanpainak egitean.

Se supervisa la actividad preventiva con ocasión de la apertura de centros de trabajo y a través de campañas sectoriales o enfocadas en riesgos concretos.

Prebentzioa kudeaketan txertatzeko prozesua sustatu eta onartzen da.

Se fomenta y reconoce la integración de la prevención en la gestión.

Kanpainen eta prestakuntzaren bidez sentsibilizatzeko alerta-sistemari eusten zaio, basogintzako lehen sektorean eta eraikuntzan, batez ere.

Se mantiene un sistema de alertas para la sensibilización mediante campañas y formación, especialmente en el sector primario-forestal y en la construcción.

4. ARDATZA: GOBERNANTZA

EJE 4: GOBERNANZA

Lidergoa gauzatzen da sektorean, erakundeetan zabalkunderako zein prestakuntzarako garatutako antolamenduaren, laguntzaren eta partaidetzaren bidez.

Laneko segurtasun eta osasunerako beste institutu batzuekin lan egiten da sarean, adierazleak adosteko eta zabalkundea sustatzeko, batez ere.

Ikerketako erakunde eta institutuekin lan egiten da, istripu eta gaixotasun profesionalen arrisku-faktoreen eta eragileen ezagutzan aurrerapen zientifikoa lortzeko asmoz.

Osasunaren, lanaren, bide-segurtasunaren, industria-segurtasunaren, gazteriaren, nekazaritzaren eta basogintzaren arloko politika publikoen plangintza egiteko eta betearazteko laguntza ematen da.

Gertakariak argitzeko eta erantzukizunak zehazteko laguntza ematen zaie laneko, osasuneko eta arlo judizialeko agintariei.

Se ejerce el liderazgo en el sector mediante la ordenación y el apoyo y participación en la actividad divulgativa y formativa de las organizaciones.

Se trabaja en red con otros Institutos de Seguridad y Salud laborales, especialmente para consensuar indicadores y para realizar divulgación.

Se colabora con institutos y entidades de investigación para el avance científico en el conocimiento de factores de riesgo y agentes causales de los accidentes y enfermedades profesionales.

Se colabora en la planificación y ejecución de las políticas públicas de Salud, Trabajo, Seguridad vial, Seguridad industrial, Juventud, Agricultura y explotación forestal.

Se presta asistencia a las autoridades laboral, sanitaria y judicial para esclarecer hechos y determinar responsabilidades.

PROGRAMA

3113 LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNBIDEA

ARDURADUNA

OSALAN - LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN EUSKAL ERAKUNDEA
OSALANEKO ZUZENDARI NAGUSIA

PROGRAMA

3113 SEGURIDAD Y SALUD LABORALES

RESPONSABLE

OSALAN - INSTITUTO VASCO DE SEGURIDAD Y SALUD LABORALES
DIRECTORA GENERAL DE OSALAN

MEMORIA

Programa honek Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen jarduera hartzen du bere baitan, bere erantzukizunaren arloan, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek laneko segurtasun eta osasunaren arloan ezartzen dituzten politikak kudeatzea, lanari datxezkion arriskuak jatorrian ezabatzeko edo murrizteko eta laneko osasuna sustatzeko.

Osalanek, Jaurlaritzak helburu hori betetzeko duen tresna nagusia denez, Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2027-2032ko Euskal Estrategia hedatzen eta garatzen laguntzeko konpromisoa hartzen du, urteko Kudeaketa Planean zehaztutako jardueren bidez. Horretarako, hausnarketa-prozesua egin eta helburuak ezarri behar dira. Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek, gizarte-eragileek, enpresek eta prebentzio-zerbitzuek prozesu horretan parte hartuko dute, eta 2026ko bigarren seihilekoan zein 2027ko lehen hiruhilekoan garatuko da.

Beraz, memoria honek Osalanen egiturazko jarduerari dagozkion helburuak, ekintzak eta adierazleak jasotzen ditu, hau da, erakundea sortzeko legean adierazitako funtzioak eta ikerketaren arloan abian diren proiektu eta programak.

Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2027-2032ko Euskal Estrategia berria hedatzean sortutako proiektuak 2027ko Kudeaketa Planean (2027ko lehenengo hiru hilabetean onartuko da, aurreikuspenen arabera) eta 2027ko irailean aurkeztuko den hurrengo ekitaldiko memorian sartuko dira

Helburuak Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2027-2032ko Euskal Estrategian ezartzen diren ardatzetan antolatuko dira. Honako gai-arlo hauek aurreikusi dira:

Kultura, kontzientzia eta gizarte-sentsibilizazioa.

Ikerketa eta jakintzaren kudeaketa.

El presente programa engloba la actividad de Osalan Instituto vasco de Seguridad y Salud laborales, en su área de responsabilidad, consistente en gestionar las políticas que en materia de seguridad y salud laborales establezcan los poderes públicos de la Comunidad Autónoma, tendentes a la eliminación o reducción en su origen de los riesgos inherentes al trabajo y a la promoción de la salud laboral.

Osalan, como principal instrumento con que cuenta el Ejecutivo para realizar este cometido, asume el compromiso de colaborar en el despliegue y desarrollo de la Estrategia vasca de Seguridad y Salud en el Trabajo 2027-2032, a través de las actuaciones recogidas en su Plan de Gestión anual. Esto implica un proceso de reflexión y establecimiento de objetivos que contará con la participación de los poderes públicos, de los agentes sociales, de las empresas y de los servicios de prevención de la Comunidad Autónoma, y se desarrollará en el segundo semestre de 2026 y en el primer trimestre de 2027.

Por tanto, la presente memoria recoge los objetivos, acciones e indicadores correspondientes a la actividad estructural de Osalan, esto es, a las funciones recogidas en la Ley de creación del organismo y a los proyectos y programas de investigación en curso.

Los proyectos que sean resultado del despliegue de la nueva Estrategia vasca de Seguridad y Salud en el Trabajo 2027-2032 se incorporarán al Plan de Gestión 2027, cuya aprobación se prevé en primer trimestre de 2027, y a la Memoria del próximo ejercicio que se presentará en septiembre de 2027.

Los objetivos se ordenarán en los ejes que se establezcan en la Estrategia vasca de Seguridad y Salud en el Trabajo 2027-2032. Se prevén las siguientes áreas temáticas, todas las cuales integrarán la perspectiva de género:

Cultura, conciencia y sensibilización social.

Investigación y gestión del conocimiento.

Kalitatea, etengabeko hobekuntza, kudeaketan integratutako prebentzioa eta genero-ikuspegia.

Lidergoa eta gobernantza.

Calidad, mejora continua, prevención integrada en la gestión y con perspectiva de género.

Liderazgo y gobernanza.

2027 URTERAKO HELBURU NAGUSIAK

OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2027

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. GIZARTE KONTZIENTZIATUAGOA LANEKO SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZ, ETA ARDURATSUAGOA LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO ORDUAN		**1. UNA SOCIEDAD MÁS CONCIENCIADA SOBRE SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO Y MÁS RESPONSABLE A LA HORA DE PREVENIR RIESGOS LABORALES**
A) Lan-arriskuen inguruko gizarte-kontzientzia eta arrisku horiek murriztu eta kontrolatzeko premia areagotzea.		**A) Incrementar la conciencia social sobre los riesgos laborales y la necesidad de reducirlos y controlarlos.**
1. Biztanleei prebentzioaren kulturari, laneko arriskuen inguruko kontzientziari eta prebentzioaren arloko portaerei edo ohiturei buruz egindako inkesta.		1. Encuesta a la población sobre cultura preventiva, conciencia de los riesgos laborales y comportamientos o hábitos preventivos.
Egindako inkesta	**1**	Encuesta realizada
Laneko arriskuak prebenitzeko beharraz jabetzen diren EAEko biztanleen (sexuaren arabera bereizitako datuak)	**%80**	Población de la CAE que tiene conciencia de la necesidad de prevenir los riesgos laborales (datos desagregados por sexo)
2. Gizartean prebentzioaren kultura areagotzeko tresna didaktikoak sortzea.		2. Creación de herramientas didácticas dirigidas a incrementar la cultura preventiva en la sociedad.
Abian jarritako tresna didaktikoen kopurua	**2**	Número de herramientas didácticas implementadas
B) Zabalkunderako ekintzak egitea, laneko arriskuen ezagutza areagotzeko eta jokabide seguruak zein lan-ingurune osasungarriak sustatzeko.		**B) Realizar acciones divulgativas para incrementar el conocimiento de los riesgos laborales y a fomentar los comportamientos seguros y los entornos laborales saludables.**
1. Interneteko eta hedabide digitaletako komunikazio-kanpainak eta zabalkunde-mezuak.		1. Campañas de comunicación y mensajes divulgativos en Internet y medios digitales.
Interneten eta hedabide digitaletan (buletina, hileko aholkuak eta sentsibilizazio-kanpainak) zabalkunderako egindako ekintzen eta mezuen kopurua	**20**	Nº de acciones divulgativas y mensajes en Internet y medios digitales (boletín, consejos mensuales y campañas de sensibilización)
Komunikabide sozialetan (hileko aholkuak eta sentsibilizazio-kanpainak, elkarrizketak, prentsa-oharrak eta erreportajeak) zabalkunderako egindako ekintzen eta mezuen kopurua	**60**	Nº de acciones divulgativas y mensajes en medios de comunicación social (consejos mensuales y campañas de sensibilización, entrevistas, notas de prensa y reportajes)
Osalanen webgunera guztira egindako bisiten kopurua	**350.000**	Nº de visitas totales a la web de Osalan
Osalanen webguneko erabiltzaileen kopurua	**100.000**	Nº de personas usuarias de la web de Osalan

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
Osalanek YouTuben duen kanaleko erreprodukzioen kopurua	**950.000**	Nº de reproducciones del canal de Osalan en YouTube
C) Emakumeetan, sektoreetan eta lanbide feminizatuetan nagusi diren lan-arriskuen ikusgarritasuna, kontzientzia eta gizarte-pertzepzioa areagotzea (laneko arrisku higienikoak, ergonomikoak eta psikosozialak dira gehienbat).		**C) Incrementar la visibilidad, conciencia y percepción social de los riesgos laborales prevalentes en mujeres, en sectores y en ocupaciones feminizadas (mayoritariamente riesgos higiénicos, ergonómicos y psicosociales).**
1. Emakumeen osasunerako arriskuei eta kalteei buruzko datuen berri ematen duten mezuak zabaltzea.		1. Divulgación de mensajes con datos sobre los riesgos y daños para la salud de las mujeres.
Zabalkunderako mezuen (albisteak, newsletterrak, hileko aholkuak, kanpainak), sexuaren arabera bereizitako datuak, emakume langileen arriskuei buruzko datu espezifikoak edo generoak LAPen daukan eraginari buruzko informazioa kontuan hartuta.	**%50**	Mensajes divulgativos (noticias, newsletters, consejos mensuales, campañas) con datos desagregados por sexo, con datos específicos sobre riesgos de las mujeres trabajadoras o con información sobre la influencia del género en la PRL.
D) Hezkuntza-ziklo guztietan, Laneko Arriskuen Prebentzioaren kulturari eustea.		**D) Mantener la cultura de la Prevención de Riesgos Laborales en los distintos ciclos educativos.**
1. EHUko Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko Udako XVII. Ikastaroa antolatzea.		1. Organizar el XVII curso de verano de la EHU de Seguridad y Salud en el Trabajo.
Bertaratutakoen kopurua	**100**	Nº de personas asistentes
2. Bigarren Hezkuntzan Laneko Arriskuen Prebentzioaren Inguruan Sentsibilizatzeko ADI Proiektua.		2. Proyecto ADI de sensibilización sobre PRL en educación secundaria.
Parte hartu duten ikasleen kopurua (sexuaren arabera bereizita)	**1.100**	Nº de alumnas y alumnos participantes (desagregados por sexo)
3. Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleek Osalanera egindako bisitak.		3. Visitas a Osalan por alumnado de Educación Secundaria y Universidad.
Parte hartu duten ikasleen kopurua (sexuaren arabera bereizita)	**500**	Nº de alumnas y alumnos participantes (desagregados por sexo)
E) Norberaren eta gainerakoen osasuna babesteko jokabide seguruen ezarpena sustatzea prestakuntzarako zein zabalkunderako jardueren bidez, enpresa txikietan, batez ere.		**E) Promover la adopción de comportamientos seguros para proteger la salud propia y la de los demás, a través de actividades formativas y divulgativas, especialmente en las pequeñas empresas.**
1. Laneko segurtasun eta osasunerako baldintzak sustatzeko jarduerak diruz laguntzea, enpresa txikietan, batez ere, informaziorako, laguntza teknikorako eta prestakuntzarako ekintzen bidez (Laneko Arriskuen Prebentziorako Estatuko Fundazioak finantzatutakoak).		1. Subvencionar actividades de promoción de las condiciones de seguridad y salud en el trabajo, especialmente en las pequeñas empresas, a través de acciones de información, asis¬tencia técnica y formación (financiadas por la Fundación Estatal para la PRL).
Prebentzioan izandako eraginaren eta proiektuen kalitatearen irizpideen arabera emandako dirulaguntza	**%90**	Subvención concedida en base a criterios de impacto preventivo y calidad de los proyectos

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
2. PREBENTZIOAREN KULTURA ETA LANEKO OSASUNAREN SUSTAPENA BARNERATZEN DITUZTEN LANGILE AUTONOMOEN GIZA TALDEA		**2. UN COLECTIVO DE PERSONAS TRABAJADORAS AUTÓNOMAS QUE INTERIORIZA LA CULTURA DE LA PREVENCIÓN Y LA PROMOCIÓN DE LA SALUD EN EL TRABAJO**
A) Langile autonomoek prebentzioari buruzko informazio eta gomendio espezifikoak jasotzea.		**A) Las personas trabajadoras autónomas reciben información y recomendaciones preventivas específicas.**
1. Ekintzaileekin edo autonomoekin elkartzeko foroak.		1. Foros de encuentro con personas emprendedoras o autónomas.
Parte-hartzaileak.	**50**	Personas asistentes.
Autonomoei eskura edo online emandako zabalkunde-material espezifikoa: liburuxkak, kartelak, fitxak, infografiak.	**2**	Material divulgativo específico para personas autónomas entregado o disponible online: folletos, carteles, fichas, infografías.
3. EUSKAL ENPRESEK LAPEN KALITATERAKO EREDUA DUTE, ETA PERTSONEN ZEIN PRODUKZIO-PROZESUEN KUDEAKETAN DAGO INTEGRATUTA		**3. LAS EMPRESAS VASCAS CUENTAN CON UN MODELO DE CALIDAD EN PRL INTEGRADO EN LA GESTIÓN DE LAS PERSONAS Y DE LOS PROCESOS PRODUCTIVOS**
A) Behar besteko tresnak garatzea, LAPen kalitatea eta kudeaketan duen integrazioa hobetzeko.		**A) Desarrollar herramientas para mejorar la calidad de la PRL y su integración en la gestión.**
1. Prebentziorako jardueren kalitatearen irizpideak zehaztea.		1. Elaboración de criterios de calidad de las actividades preventivas.
Item kritikoei buruzko eskuliburua, prebentziorako jarduerak eta arauen zein jarduketa administratiboaren aldaketarako proposamenak kalitatekoak direla bermatzeko.	**1**	Manual con los ítems críticos para asegurar la calidad de las distintas actividades preventivas y propuestas de modificaciones normativas e intervención administrativa.
B) Enpresak osasun-arloko krisiei eta larrialdiei aurre egiteko gai izatea.		**B) Las empresas están capacitadas para afrontar situaciones de crisis y emergencias sanitarias.**
1. Osalan, Osasun Publikoa eta Prebentzio Zerbitzuetako ordezkariak koordinatzea, langileen osasunean eragina izan dezaketen arazoak kudeatzeko eta osasun-arloko krisiei zein larrialdiei aurre egiteko.		1. Coordinación entre Osalan, Salud Pública y los representantes de los servicios de prevención para gestionar problemas que pueden afectar a la salud de las personas trabajadoras y afrontar situaciones de crisis y emergencias sanitarias.
Laneko osasunaren arloko arazoak kudeatzeko egindako bileren kopurua	**25**	Nº de reuniones para gestionar problemas de salud laboral
4. JAKINTZA SORTZEA, LANEKO SEGURTASUN ZEIN OSASUNAREN ARLOAN OINARRIZKO IKERKETA APLIKATUA GARATZEAN		**4. SE GENERA CONOCIMIENTO DESARROLLANDO INVESTIGACIÓN BÁSICA Y APLICADA EN SEGURIDAD Y SALUD LABORALES**

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
A) Laneko segurtasunaren eta osasunaren (LSO) arloko premia eta eskaera sozialak zein diren jakitea eta kontuan hartzea. Horretarako, genero-ikuspegia zeharka ezartzea eta emakumeek zein gizonek lanaren ondorioz jasandako eraginak modu bereizian aztertzea.		**A) Se conocen y tienen en cuenta las necesidades y demandas sociales en materia de seguridad y salud laborales (SST), incorporando de forma transversal la perspectiva de género y analizando de manera diferenciada las afecciones laborales de mujeres y hombres.**
1. EAEko laneko segurtasunaren eta osasunaren egoera azaltzen duten parametroak zein diren zehaztea eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2027-2032ko Euskal Estrategia berriaren erronkak zein diren adieraztea, prozesu osoan genero-ikuspegia kontuan hartuta.		1. Definir los parámetros que describen la situación de la seguridad y salud en el trabajo en la CAE y los retos de la nueva Estrategia vasca de Seguridad y Salud en el trabajo 2027-2032, incorporando la perspectiva de género en todo el proceso.
Laneko segurtasun eta osasunerako adierazleen sistema.	**1**	Sistema de indicadores de Seguridad y Salud en el trabajo.
Pertsonen datuak, sexuaren arabera bereizita	**%100**	Datos de personas desagregados por sexo
B) EAEko lan-ezbeharrei buruzko informazio estatistikoa biltzea eta argitaratzea.		**B) Recopilar y publicar información estadística sobre siniestralidad laboral en la CAE.**
1. Laneko ezbeharrei buruzko datuak biltzea eta estatistikak argitaratzea.		1. Recopilar datos y publicar las estadísticas de siniestralidad laboral.
Urtero argitaratzea	**1**	Publicación anual
C) EAEko patologia profesionalen gaur egungo egoera ezagutzeko informazioa biltzea eta gaixotasun profesionalen azterketa epidemiologikoak zein estatistikak argitaratzea.		**C) Se recopila información para conocer la situación actual de las patologías de origen profesional en la CAE, y se publican los estudios epidemiológicos y las estadísticas de enfermedades profesionales.**
1. Gaixotasun profesionalen azterketa epidemiologikoak zein estatistikak egitea eta argitaratzea.		1. Realizar y publicar estudios epidemiológicos y estadísticas de enfermedades profesionales.
Urtero argitaratzea	**1**	Publicación anual
D) Lan-istripuak ikertzea, zergatiei eta arrisku-faktoreei buruzko informazioa lortzeko eta prebentzioan bertan ezartzeko.		**D) Investigar los accidentes de trabajo para extraer información sobre las causas y los factores de riesgo, y aplicarla a la prevención.**
1. Lan-istripuei buruzko ikerketen ondorioz lortutako informazioa aztertzea.		1. Analizar la información extraída de las investigaciones de accidente de trabajo realizadas.
Ikertutako istripuak, Kudeaketa Planean adostutako irizpideen arabera zehaztutakoen aldean	**%100**	Accidentes investigados respecto a los determinados por los criterios acordados en el Plan de Gestión
E) Laneko minbiziaren jakintza zientifikoa eta epidemiologikoa sustatzea.		**E) Se promueve el conocimiento científico y epidemiológico del cáncer de origen profesional.**
1. Kudeaketa Planean adostutako irizpideen arabera zehaztutako gaixotasun profesionalak ikertzea.		1. Investigar las enfermedades profesionales determinadas por los criterios acordados en el Plan de Gestión.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
Ikertutako gaixotasun profesionalak, Kudeaketa Planean adostutako irizpideen arabera zehaztutakoen aldean.	**%90**	Enfermedades profesionales investigadas respecto a las determinadas por los criterios acordados en el Plan de Gestión.
2. Laneko minbizia eta agente kimiko, kantzerigeno, mutageno edota erreprotoxikoekiko esposizioaren ondorioak ikertzea.		2. Investigar el cáncer de origen profesional y los efectos de la exposición a agentes químicos, cancerígenos, mutágenos y/o reprotóxicos.
Laneko Minbiziaren Prebentziorako Agenda Nazionalean Osalanen ekarpena edo partaidetza aktiboa (txostena, azterketa, lana) daukaten proiektuen kopurua.	**2**	Nº de proyectos de la Agenda Nacional para la Prevención del Cáncer Laboral en los que Osalan realiza una contribución o participación activa (informe, estudio, trabajo).
3. Diziplina anitzeko taldeek (medikuak, teknikariak eta ikuskatzaileak) hautatutako gaixotasun profesionalak ikertzea, prozesuei eta agente kausalei buruzko informazioa zuzenean (gure datuak) lortzeko.		3. Investigar enfermedades profesionales seleccionadas por equipos multidisciplinares (personal médico, técnico e inspector) para extraer información de primera mano (datos propios) sobre los procesos y los agentes causales.
Osalaneko eta Lan Ikuskaritzako taldeek ikertutako gaixotasun-kasuen kopurua.	**20**	Nº de casos de investigación de enfermedades por equipos de Osalan e Inspección de Trabajo.
F) Laneko osasunaren arloko ikerketa sustatzea.		**F) Se fomenta la investigación en el área de salud laboral.**
1. Laneko osasunari buruzko datuak aztertzeko eta aurkezteko oinarrizko ikastaroa egitea (EHUko Laneko Medikuntza eta Erizaintzako Katedra).		1. Curso básico para analizar y presentar datos en salud laboral (Cátedra de Medicina y Enfermería del Trabajo de la EHU).
Ikasleen kopurua	**50**	Nº de alumnas y alumnos
Ikasleen gogobetetasuna (batez besteko gutxieneko puntuazioa 1etik 5erako eskalan)	**8**	Satisfacción de las alumnas y alumnos (puntuación media mínima en una escala del 1 al 5)
G) Oinarrizko ikerketarako edo ikerketa aplikaturako proiektuak sustatzea (materialak edo substantziak ordezkatzeko irtenbide teknologikoak, antolamendu-irtenbideak eta prebentzio-teknologia garatzea edota ebaluatzea).		**G) Se promueven proyectos de investigación básica o aplicada (desarrollo y/o evaluación de soluciones tecnológicas para la sustitución de materiales o sustancias, soluciones organizativas y tecnología preventiva).**
1. Eragin sozialaren irizpideen arabera hautatutako ikerketa-proiektuetarako dirulaguntzak.		1. Subvenciones a proyectos de investigación seleccionados en base a criterios de impacto social.
Prebentzio-arloko eraginaren irizpideen arabera emandako dirulaguntza	**%90**	Subvención concedida en base a criterios de impacto preventivo
2. SAFERA (Segurtasun Industrialaren Europako Plataforma Teknologikoa) talde europarreko kide gisa segurtasun industrialeko proiektuetarako jasotako dirulaguntzak.		2. Subvenciones a proyectos de seguridad industrial como miembro del grupo europeo SAFERA (Plataforma Tecnológica Europea de Seguridad Industrial).
Diruz lagundutako proiektuen kopurua	**2**	Nº de proyectos subvencionados
